

Euskararen tratamenduak: bilakaera

JABIER ALBERDI LARIZGOITIA*

“De ce que la méthode comparative est la seule qui permette de faire l’histoire des langues il résulte que, tant qu’une langue est isolée, elle est dénuée d’histoire. Entre l’état du basque au XVI^e siècle et l’état du basque aujourd’hui, il y a des différences; mais les changements ne sont pas essentiels; en substance, la langue est restée la même”.

(Meillet, Michelena 1986tik jasotako aipamena)

“De ninguna manera se puede decir, por lo tanto, que el vasco carezca de historia: hablando con exactitud, lo más que se puede decir es que esa historia es corta en comparación con la de muchas otras lenguas y también, si se quiere, menos completa dentro del período sobre el cual nos informan los textos a causa de la escasez relativa de éstos. (...) Decir que los cambios documentados no son esenciales y que la lengua, en sustancia, sigue siendo la misma es otra manera de decir —mucho más expuesta a malentendidos— que esos cambios son pequeños, siendo así que habrían sido mayores de estar fechados los textos más antiguos cinco o diez siglos antes”.

(Michelena, 1986:12)

(1). SARRERA

Oro har, euskararen bakartasun linguistikoagatik, hizkuntzaren garai historikoaren (XVI-XX) laburragatik eta laburtasun horri sarritan lagundu ohi dion dokumentu-urritasunagatik, euskarari buruzko ikerkuntza his-

* UPV-EHUko irakaslea.

torikoa eginkizun erraza ez bada, hemen aztergai dugun tratamenduen arloa zailenetakoa litzateke agian diakronia egiteko. Izan ere, esku artean erabili nahi dugun gaiaren inguruko lekukotasunak berankorrak izateaz gain, mugatuegiak dira garai historikoko bilakabidea urratsez urrats datatu ahal izateko. Ondorioz eta geure gogoz kontra, latinetikako hizkuntzetan tratamenduen bilakaeraz eskaini ohi diren zehaztasunetatik eta ziurtasunetik oso urruti ibiliko gara geure azterketa honetan, batzuetan zalantzen artean haztaka eta inoiz itsuka ere bai. Esan bezala, euskarazko dokumentu idatzi zaharrek ez digute ispilatzen bere osotasunean hizkuntzaren benetako errealtate soziala, erlijio-gaien ingurukoa izanik, gure literatur tradizioan nagusiki erregistro jasoak ageri delako eta gurean literatura erromantzeetako urrezko antzerkigintzaren antzekorik izan ez delako. Hizkuntzaren historia eta aurrehistoria, hau da, ziuerra eta gezurtagaitza elkarrengandik bereizten ahalegindu garen arren, behin baino gehiagotan garai historikoari buruzko hutsarte nabariekin topo egin dugu eta beldur gara nahi baino gehiagotan datatze historiko egiaztatuen ordeztasun hipotesi hutsak, sinesgarriago edo sinesgaitzagoak, funtsatuago edo ez hain ongi funtsatuak, eskaini ez ote ditugun. Gauzak horrela, “ausardia” handiaren fruitu den gure lan hau euskal tratamenduen bilakaera argitzeko behin-behineko saiakera modura ulertu behar da; alde horretatik, ez litzateke bat ere harrigarria izango hemen aurreratutako hipotesi eta uste batzuk datu eta testu berrien argitan aldatu behar izatea.

1. PLURALITASUNA BEGIRUNEAREN ADIERAZGARRI: ZU IZENORDAINAREN JATORRIZKO PLURALITASUN USTEZKOA ETA HAREN SINGULARTZEA

Hizkuntzalariaren sena eta begi zorrotza izan dituzten gramatikarari euskaldun eta kanpotar askok (Oihenartengandik hasita, Oyenart, 1638: 340; 352) agertu izan dute *zu* izenordainaren jatorrizko pluraltasunaren aldeko hipotesia.

Antzina batean *zu* izenordaina (gaur singularreko bigarren pertsona begirunezkoa) plurala (lat. “vos”) izan zelako hipotesiaren alde eta *zuek* plural berritu edota berretua delako hipotesiaren alde honako argudio hauek eman daitezke euskararen morfologian oinarrituta (ik. Azkue, 1905-1906: “zu” sarrera):

1. Forma edo morfologiaren aldetik, pertsona-izenordainak bi multzotan bana daitezke: alde batetik, singularrekoak, -i- erroa dutenak (*ni*, *hi*); eta bestetik, -u- erroa dutenak, pluralekoak edo noizbait plural izanak (*gu*, *zu*, *zuek*). Agerian dago batzuen eta besteen arteko antzekotasunik eza eta sail bakoitzeko arteko antzekotasuna.

2. Euskal aditz mugatuan pertsonaren adierazleak diren hizki batzuk (aurrizki, atzizki edota artizkiak) agertzen dira; eta pertsona-marka horiekin batera, pluraleko adizkietan, pluraltasunaren adierazle diren artizki batzuk, agertu ohi dira, honako hauek, hain zuzen ere (Euskaltzaindia, 1987:143-144):

A) NOR sintagmari dagozkion pluralgileak:

- z(*ki*)- (hura guri) *zaigu*/ (haiek guri) *zaizkigu*;
(ni hari) *natzaio*/ (gu hari) *gatzaizkio*...
- z- (hura) *doa*/ (haiek) *doz*;
(ni) *noa*/ (gu) *goz*...
- tza- (hura) *dabil*/ (haiek) *dabitza*;
(ni) *nabil*/ (gu) *gabitza*...
- it- (hura hark) *du*/ (haiek hark) *dit*;
(ni hark) *naul*/ (gu hark) *gait*...

Bada, pluralgileok, erreferentzia plurala duten *gu* (I'), *zuek* (II') eta *haiek* (III') sintagma absolutiboei dagozkien adizkeretan ez ezik, erreferentzialki singularra den *zu* sintagmari dagozkionetan ere agertuko dira: hortaz, *zu* izenordaina morfologikoki edo gramatikalki plural gisa tratatzen da aditz jokatuetan, antzinatean benetako plurala izan zen seinale. Adibidez,

- z(*ki*)- (hi hari) *joan batzaio*/(zu hari) *joan zatzaizkio*
- z- (hi) *hoa*/ (zu) *zoz*
- tza- (hi) *habil*/ (zu) *zabitza*
- it- (hi hark) *jo haur*/ (zu hark) *jo zait*

3. Ez dirudi, bestalde, *zuek* izenordaina gainerako pluralak bezain zaharra denik eta hori honako arrazoi formal nagusi honengatik: gainerako izenordainek ez bezala eta batik-bat pluraleko izenordainek *-gu*, *zu-* ez bezala, erakusleen “deklinabide” pluralari jarraitzen diolako; *zuek* izenordainak *zu* formaren gainean eraikia dirudi, azken honi izenen morfologian pluraltasunaren ezaugarria den *-k* (< **-ag*)¹ atzizkia erantsiz. Beste pertsona-izenordain guztiak, aldiz, “mugagabez” deklinatzen dira, hots, mugatzailerik gabe: kasu-marka hutsaren bidez.

4. Goraxeago egindako baieztapenaren arabera *zuek* (II') izenordaina *zu-*ren (II-2'-ren) forma pluralizatua bada, gauza bera esan daiteke II'. pertsonako adizkeri buruz: azken hauek, pluralgile (inoiz pluralgile berretuaren) bidez, *zu* izenordainari dagozkion adizkien gainean eraikiak dirudite. Hau da, II'. pertsonako adizkerak morfologikoki II-2'-ren (*zu-*ren) plural gisa izan dira tratatuak euskal aditza jokatzerakoan; pluraleko lehen (I': *gu*) pertsonari dagozkion adizkerak, aldiz, erabat beregainak dira eta ez singularreko lehen

1. Izenen morfologian, antzinako mugatzaile plurala **-ag* izan zitekeela proposatu izan dute euskalariak (besteak beste, Campion, Gavel, Lafon, Mitxelena eta De Rijk-ek). Horrela azaltzen dira, adibidez, hurrengo forma pluralak: [hemen, * ikurraren bidez dokumentatugabea dela adierazi nahi da] *gizonak* (absolutibo plurala) < *gizonag*; *gizonek* < (ergatibo plurala) < **gizonag* + (e) *epentetikoa* *-k*; *gizonen* < **gizonag* + *-en*; etab. Azalpen horren arabera, **zuak* espero genezakeen absolutiborako eta ez *zuek*; dena den, *zuek* izenordainaren kasuan, erakusleen kasuan bezalaxe, sinkretismoa dago absolutibo eta ergatibo pluralen artean. Agian, gainerako kasuekiko analogiaz (*zuek* < **zuag*-(e)+-k; *zuen* < **zuag* + *-en*, *zuei* < **zuag*+(e)-i, *zuekin* < **zuag* (e) + kin; *zuentzat* < **zuag* + *-entzat*...) azal liteke aipatu sinkretismoa.

pertsonako (I) adizkeretatik eratorriak. Aditzaren morfologian ageri den trataera berezi hau, II'. pertsonako adizkeren izaera eratorriaren alde edo haien "berritasunaren" alde mintzo dela deritzogu. Azter dezagun trataera morfologiko berezi hori zertan den.

Hirugarren pertsonako adizkera singularra eta plurala elkarrengandik bereizteko *-(t)e* pluralgilea erabiltzen da, hirugarren pertsona hori ergatiboa edo datiboa denean eta inoiz absolutiboa denean ere,

[bark] esan du/[haiek] esan dute
[hari] esan dio/[haiei] esan die < [dio+te]
[hura] dago/[haiek] daude < [dago+-de].

Bada, adizkera jokatueta zu/zuek bereizketa hirugarren pertsonako pluralgile berberaren bidez *-(t)e*-ren bidez—egiten da beti. Horrela,

(zu hari) joan zatzaizkiol (zuek hari) joan zatzaizkiote,
(zu) zoaz! (zuek) zoazte,
(zu) zabiltzal (zuek) zabiltzate,
(zu bark) jo zaitul (zuek bark) jo zaituzte,
(zuri nik) esan dizut! (zuei nik) esan dizuet,
(zuk hura) egin duzul (zuek hura) egin duzue,
(zuk hura) zenuen! (zuek hura) zenuten,
(zuk hura niri) esan zenidan! (zuek...) esan zenidaten...

Ageri denez, *zuek* sintagma absolutiboari dagozkion adizkietan (*zatzaizkiote*, *zoaz-te*, *zabiltza-te*, *zaituzte*) bi pluralgile metaturik ageri zaizkigu: bata, zaharra, zu pertsonarena (*-zki-*, *-z-*, *-tza-*, *-it-*) eta bestea, ustez berriagoa (*-(t)e*), II-2' (*zu*) pertsonako adizkiari erantsia. Beraz, *zuek* pertsonari aditzean eman zaion trataera morfologiko bereziak agerian uzten du bere izaera eratorria: *zu* pertsonari dagozkion adizkiei pluralgile berezi bat—batzuetan bigarren—erantsiaz sortu bide dira pluraleko bigarren pertsonako adizkerak.

5. Azkuek (1905-1906), aipatutakoez gainera, XIX. mendeko bizkaierazko idazle batzuen (J. A. Mogel, Fr. Bartolome) lekukotasuna dakar, *zu*-ren antzinako pluraltasunaren argudio frogagarri eta erabakiortzat joaz. Idazle hauen idazlanetan, inoiz edo behin, formaz II-2' (*zu*) pertsonari dagozkion adizkerak esanahi plurala dutela, hots, pluraleko bigarren pertsona erreferentzialari (II'-ri) dagozkiola agertzen dira². Michelenak horrelako le-

2. Honako hauek dakartza, J. A. MOGELen *Peru Abarcatik* eta Bartolomerengandik jasota: *Enakutsu...*: "¿no me veis (vosotros)..."; *Gizon onak, jaso nagizu*: "buenos hombres, levantadme"; *neure mutil onak, iges egizu gaurko neskatilletati*: "mis buenos muchachos, huid de las muchachas de hoy"; *Zeuek dakizu*: "vosotros lo sabéis"; *neuk aginduten deusit ametako zeuen arerioak*: "yo os mando que améis (vosotros) a vuestros enemigos"; *egon zaitetz guztiok zur*: "estad todos atentos"; *pekatu egin eztozunok ta aurrera bere egingo eztozuna dakizunok*: "vosotros, los que no habéis pecado y que sabéis que tampoco en adelante habéis de pecar". Esan

kukotasuna aurkitu du Fr. Juan de Luzuriagak jasotako testu zaharrago (XVII) batean³.

Bestalde, ikuspegi diakroniko zabalago batetik begiratura, hizkuntza baten bilakaeraren lehen estadioetarako tratamenduaren araberako edo begirune-mailaren araberako bereizkuntza morfologiko garbiak postulatzeak nahiko hipotesi zentzugabea dirudi. Izan ere, oro har, tratamenduen bilakaera ezein hizkuntzatan, hizkuntzaren beraren bilakatzeko barne-egiturazko gaitasunen, hizkuntzaz kanpoko bilakaera historiko-sozialaren eta inguruko hizkuntzen eragin kutsakorren emaitza izan daitekeela onartu ohi da. Hortaz, edozein hizkuntzarentzat, lehen estadioetan tratamenduaren aldetiko bereizketarik gutxi edo bat ere ez dagoela onartzen bada⁴, euskararentzat ere antzeko soiltasuna proposatu beharko da, datu enpirikoek edota morfologiazko arrazoiek kontrako bidetik jotzera bultzatzen ez gaituzten bitartean, bederen.

Euskaraz ustez gertatu den bilakaera hau (zu singulartzeara begirunezko balioaz: II' ==> II-begirunezkoa) ez da zerbait arraroa, munduko hainbat hizkuntzatan bete den diakroniazko aldakuntza guztiz ohizkoa baizik. Tratamendu-mailak hizkuntzen eta batik-bat pertsona-izenordainen bilakaerarekin batera gauzatuz joan diren bereizketak dira. Eta hain zuzen, numeroa da (Head, 1978:190) izenordainen ezaugarriarik erabiliena hainbat hizkuntzatan pertsona-izenordainen bidezko erreferentzia errespetu-mailak edo gizarte-tartea adierazten dituzten alternantziak sortzeko⁵. Hainbat hizkuntzak plura-

beharra dago, dena dela, aipatu lanetan bertan salbuespenezko forma bitxi horiekin (*dakizu*, “vosotros sabéis”) batean barra-barra erabiltzen direla II'-2” (*zuek*) pertsonako adizkera plural arruntak, -(t)e pluralgiledunak, alegia (*dakizue* bezalakoak).

3. Testuak honela dio: *Ene Seme, Alaba chipi laztanchoac, oficio citalori utziegiçu. Biurta zaitez Jaungoico poderosoagana Christau onac bezela: sinistendeçula...* Eta Mitxelena honako iruzkina egiten du: “Luzuriaga mantuvo sin alteración las formas verbales *eguiçu*, *zaitez*, *deçula* con valor de 2ª pers. del plural, no del singular (voseo), que es el único que tienen en el guipuzcoano más reciente. No carece por tanto de interés el consignar que una mano posterior, aunque de fecha incierta por desgracia, las pluralizó en el ms., convirtiéndolas en *eguiçue*, *zaitezte* y *deçuela*.” (MICHELENA, 1964: 167).

4. Joseph-en (1987) arabera, hurrengo hizkuntza indoeuropar arkaikoetan ez omen zegoen begirunea erakusteko xedez sortutako bereizketa morfologikorik: prusiera zaharra; elizako eslaviarra zaharra/bulgariarra zaharra; frisiera zaharra; frisiera zaharra, ingeles zaharra, saxoi zaharra, ipar alemaniera zaharra, suediera zaharra, daniera zaharra, norvegiarra zaharra, islandiera zaharra; irlandera zaharra; latin klasikoa, oscoera-umbriarra; armeniera zaharra; greko klasikoa; sanskritoa, pertsiera zaharra, avesta; hititeria; tokariarra. Eta gaur egungo zenbait dialektok ere ez bide dute begirunearen araberako bereizketa morfologikorik; adibidez, hurrengoek: Italiako Abruzzikoak, Markak (hegoaldea), Umbria (hegoaldea), Sabina mendiak, Puglia (hegoaldea), Campania eta Calabriako zatiak; aromaniarra eta sub-danubiar daco-errumanieraren dialekto kolonialak.

5. Numero-aldaketa izenordainetan errespetu-mailak edota gizarte-tartea adierazteko, diskurtsoan bereizi ohi diren hiru partehartzaileei erreferentzia egiterakoan gerta daiteke: hiztunari, hartzaile edo solaskideari eta ez hiztun, ez solaskide ez denari –hirugarren pertsona deiturikoari– erreferentzia egiterakoan, alegia. Edozein modutan ere, numero-aldaketa maizago gertatzen bide da helburu horrekin bigarren pertsonako izenordainetan, lehen eta hirugarren pertsonakoetan baino (HEAD, 1978).

leko izenordainera jo dute solaskidearenganako begirune handiagoa agertze-ko.

Head-en (1978:157-158) arabera, arakaturiko ehunen bat hizkuntzaren artean hurrengoak numeroaren aldaketaz baliatzen dira bigarren pertsonako izenordainetan solaskidearekiko errespetu-mailak edota gizarte-tartea adierazteko:

Singular-Plurala		
alemaniera	java-portugesa (kreol.)	proventzala
amharic	kanarese	errumaniera
arabiera	kannada	errusiera
bengalera	kapampangan	sango
bulgariera	katalana	sanskritoa
chagatay	kefa	serbokroaziera
changana (Tsonga)	khasi	shona
chinyanja	kymruera	
chitumbuka	lala	sindiera
daniera	lamba	sukuma
dari	latina	suediera
ekialdeko pomo	letoniera	suomiera
espaniera	lituaniera	tagalera
estoniera	malagasy	tamil=tamul
euskara	malaysiera	telugu
faroera	malayalam	tigrinya
fijiera	mandarina (txinera)	txekiera
Filipinetako espaniera	mande	tulu
frantsesa	marathi	turkiera
galla	more	urdu
gbaya	nederlandera	welamo
gilyak	nepaliera	wisa
grekoa	norvegiera	yiddish
gujarati	nsenga	yoruba
harari	nyamwesi	
hindiera	nyanja	
ila	pamiamento	
indonesiera	pertsiera	
indo-portugesa (kreol.)	poloniera	
islandiera	portugesa	
italiera		

Singular-Duala

mota	navajo	tikopia
------	--------	---------

Bistan dagoenez, goiko zerrendako hizkuntzen artean ez dago jatorrizko kideetasunik edo antzekorik; batera jartzeko arrazoi bakarra, solaskideari zu-

zentzeko izenordainetan, numeroan oinarrituriko tratamendu-bereizketa egiten dutela da; hots, solaskideari erreferentzia egiteko, errespetu-maila edo gizarte-tartea adierazten duen eta numeroan (“singular/plural” edota “singular/dual”) oinarriturik dagoen bigarren pertsonako izenordain-alternantzia izatea da goiko hizkuntzen arteko kidesan nabarmen bakarra. Hortik aurrera, alde handia dago hizkuntza batetik bestera alternantzia edo bikoiztasun hori gauzatzeko orduan: aldea, bai alternantzia hizkeraren arabera gauzatzeko moduari dagokionez, bai bilakaera historikoari dagokionez, bai gizarte-aldagai pisudun edo eragileei dagokienez eta bai tratamendu-bikotea osatzen duten izenordainetako bakoitzaren balio sozialari dagokionez ere. Espainieraz, adibidez, numeroan oinarrituriko tratamendu-bikoiztasuna era askotara gauzatu da lurraldearen arabera, batez ere, Amerikako aldaerak kontuan hartzen baditugu.

Desberdintasunak gorabehera, tratamenduari gagozkiola, goiko hizkuntzen artean badaude kidesan edo antzekotasun garrantzitsuak bigarren pertsonako izenordainetan. Lehenik, sozialki edo pragmatikoki adierazgarria den numero-aldaketa, solaskide bakarrari erreferentzia egiten zaion kasura murriztuta dagoela ematen du (Head, 1978:158): hots, bati baino gehiagori zuzentzerakoan ez bide dira –gorago aipatutakoetatik– inongo hizkuntzatan numeroaren aldaketaz baliatzen tratamenduzko bereizketarik egiteko. Bigarrenik, bigarren pertsonako izenordainetan gertatzen den numeroaren aldaketak esanahi sozial berbera du goiko zerrendako hizkuntzetan solaskide bakarrari mintzatzerakoan: izenordain plural edo dualak beti singularrak baino errespetu edo distantzia handiagoa adierazten du. Bestalde, goiko hizkuntzek, ez jatorrizko ahaidetasunik, ez geografia-eremuzko kidesan ez dutenez gero, pentsatzekoa da bilakabide semantiko hau –singularren ordez, plural edo duala erabiltzea kortesiatzeko tratamendurako– ez dagoela munduko hizkuntz familia batzuetara edota geografi eremu jakin batzuetara mugatua: badirudi maila unibertsaleko joera izan daitekeela⁶.

6. Lehenago ere, beste ikerlari batzuek hipotesi berbera agertu izan dute, elkarrengandik hain urruti dauden hizkuntzetan halako joera-batasuna ezin baita azaldu arrazoi historiko hutsez. Esate baterako, Brown-ek (1965: 54), latinezko V errespetuzkoak Europako sartzaldeko hizkuntzetan antzeko sistemak garatzeko eragingo zukeela onartuta ere (Brown and Gilman, 1961), pluraltasuna gizarte-boterearen metafora garbi eta berezkozat jotzen du; izan ere, latinarekin zerikusirik ez duten hizkuntzetan (Kroeber-en –1925– arabera, Kaliforniako indiar hizkuntzetan, adibidez) antzeko tratamendu-eredua garatu izana da Brown metaforaren hipotesiaren alde makurazten duena. Gregersen-en (1974: 53) arabera, Afrikako hizkuntzetan “zu” errespetuzkoa garatzeko arrazoi historikoa ez da Europa aldekoa bezain agerikoa. Bean-ek (1970: 564) ere hipotesi berbera plazaratu zuen: “... in languages that use number in the pronominal system to express the presence or absence of social distance, it appears to be universal that the plural communicates the presence of social distance and the singular its absence.” Bestalde, autore honek pluralari berez distantzia edo urruntasuna datzekiola argudiatzen du, pluraltasuna hirukote bati (hiztunak eta solaskide batek baino gehiagok osatutako hirukoteari) dagokiolako; singularrak, ordea, berezkoa du hurkotasuna, bikote bati (hiztunak eta solaskideak osatutako bikoteari) dagokiolako.

Esanak esan, ba omen da salbuespen bat edo beste: bema hizkuntzan, herritar helduen artean plurala ohitzen den bitartean, buruzagi nagusienei singularra zor omen zaie; chukchee eta koryak hizkuntzetan inoiz edo behin singularren ordez plurala erabiltzen omen dute begirunezko kutsurik gabe.

Zailagoa da, beharbada, deskribapenetik harantzago joanda, munduko hainbeste hizkuntzatan gertatutako bilakaera hau azaltzea. Zergatik jo izan da hainbestetan pluralera begirunezko tratamenduak adierazteko? Arrazoibide bat, gramatika-kategorien eta nozio-kategorien arteko analogien ildotik bila liteke. Horrela, tarte fisiko eta tarte sozialaren arteko analogiak erraz adieraz litezke gramatika-kategorien bidez: solaskidearen nortasuna zehazgabetuago geratzen da plurala erabiliz gero; pluraltasuna, handitasunaren metafora da; bigarren pertsona pluralaren eta singularraren artean metonimiazko erlazioa dago, bigarren pertsona singularra bigarren pertsona pluralaren osagai nozionaletakoa bat baita ($II' = II + [...]$; $II' = II + [III + [...]]$); etab.

Esan izan da zu izenordainaren singulartztea aldameneko hizkuntza erromantzeen eraginez gertatu dela, berrikitan gertatua dela⁷, etab. Dena den, aldemeneko hizkuntzen eragina guztiz ukatu gabe, uste dugu hipotesi hori ez dela hain begi-bistakoa. Izan ere, [$II' ==> II$ -begirunezkoa] bilakaerak hizkuntza erromantzeen eta are hizkuntza indoeuroparren eremua ere gainditzten duela ikusita, ahulduta geratzen da “kalkoaren” hipotesia. Autoreren batek iradoki duenez⁸, oro har, begirunezko tratamenduen adierazpen morfologikoa pertsona kategoriaren gailentzeari lotua baldin badago, eta konkretuki hizkuntza indoeuroparretan pertsona kategoriaren gailentze hori sintesitik analisiranzko makurduraren (ing. *slant*) ondorioz etorri baldin bazen, ez dirudi hain begi bistakoa euskararen kasuan tratamendu-bereizketa inguruko hizkuntzetakoaren ondoren eta haien eraginez heldu denik. Izan ere, euskal aditz pluripertsonalean pertsona kategoriak duen gailentasuna oso nabarmena da eta itxura guztien arabera, zaharra ere bai. Gauzak horrela, litekeena da euskarak berez edo bere baitatik garatu izana *bi/zu* tratamendu-bereizketa eta ez hain berrikitan: beharbada, *zu* izenordainaren bilakaera singular begirunezkoarantz berez sortu zen euskararen eta geroago aldameneko hizkuntzetako eredua (*vos* begirunezkoa latinez IV. mendetik aurrera eta haren forma eratorriak gaztelaniaz *-vos-* eta frantsesez *-vous-* Erdi Arotik aurrera) joera horren sendogarri edo bultzagarri gertatuko zatekeen.

Hipotesiak hipotesi, euskal *zu*-ren singulartzearen azken ondorioa, alegia, garai historikoaz geroztik ezagutzen duguna, ez da izan sinkretismoa. Hau da, beste hizkuntza indoeuropar askotan⁹ bilakaera honelakoxea izan zen (Joseph,

7. Gaztelaniazko *usted* begirunezkoaren eragina ere aipatu izan da batzuetan; baina bistan denez, baieztapen hori funtsik gabekoa da, *usted* izenordaina euskal *zu* singularra baino geroagokoa delako eta morfologiaz edo eraketaz (*usted <...< vuesa merced*) elkarren antzik ez dutelako. Eraginik onartzekotan, erromantzeetako *vos* izenordain begirunezkoarena onar genezake.

8. “The universal aspect of the hypothesis which I am proposing is that the expression of deference is connected to prominence and relevance of the category of person. The family aspect is that within IE a marked increase in the relevance of person came about with the typological slant from synthesis to analysis.” (JOSEPH, 1987: 269).

9. Hala nola, letoniera, bulgariera, mazedoniera, serbokroaziera, esloveniera, txekiera, eslovakiera, lusaziera, errusiera, bieloerrusiera, albaniera, suediera, yiddish, bretoiara, eskoziar gaeliera, latin berankorra, Erdi Aroko gaztelania, Erdi Aroko italiara, frantsesa, gaurko grekoa, mendebaldeko erdialdeko iraniera –erdialdeko pertsiera eta parthiera–, gaurko pertsiera...

1987:262): II' == => II'/II-begirunezkoa. Azken hizkuntza hauek pluralera jo zuten, zeregin bitarako, hots, pluraleko bigarren pertsonarako (fr. *vous*) eta singularreko begirunezko bigarren pertsonarako (fr. *vous*) forma bakarra erabiliz¹⁰.

Bada, euskara aurreko hizkuntzak baino urrunago joan da eta numerozko anbiguotasuna desegitea lortu du izenordain-sistemaren berregituraketa bati esker. Horrela, lehen aldi batean gorago aipatutakoaren antzeko bilakaera (II' == => II'/II-begirunezkoa) postula liteke antzinako euskararentzat; balizko garai horretan *zu* izenordainak balio bikoitza izango zukeen (II' eta II-begirunezkoa). Bigarren aldi batean, *zu*-k bere pluraltasuna galdu eta bigarren pertsonako izenordain plural berritu edota berretu baten bidez (*zuek*) lortuko zatekeen anbiguotasunaren oztopoa gainditzea (*zu*:II-begirunezkoa/*zuek*:II'). Badirudi, beraz, euskaraz izenordain pluralaren singularitzea eta plural berriaren sorrera (*zuek*) gertaera historiko lotuak eta jarraiak izan daitezkeela: seguruenik, plural berri edo berritua, antzinako izenordain plural ustezkoa (**zu*:II') errespetuzko tratamendu gisa (II'/II-begirunezkoa) erabili izan zelako sortuko zatekeen. Ondorioz, *zu* izenordainaren bilakaera bi urratsetan burutuko zatekeen eta haietatik bigarren urratsa, *zuek* izenordainaren sorrerari lotua joango zatekeen:

*II' == => *II'/II-begirunezkoa == => II-begirunezkoa

1. *II' == => *II'/II-begirunezkoa

2. *II'/II-begirunezkoa == => II-begirunezkoa

10. Joseph-ek (1987: 262), pertsona-izenordainen bilakaeran oinarrituta, honako lau tipo hauek bereizten ditu hizkuntza indoeuroparretan: 1. begirunearen adierazpen morfologikorik gabeko hizkuntzak; 2. begirunea adierazteko pluralera jo duten hizkuntzak; 3. begirunea adierazteko hirugarren pertsonara jo duten hizkuntzak; 4. begirunea adierazteko pluralera eta hirugarren pertsonara jo duten hizkuntzak. Hona hemen, emankorrena gertatu bide den bigarren tipoaren barne sailkatzen dituen azpimultzoak eta hizkuntzak:

(2) TIPOA: PLURALA BEGIRUNEZKO TRATAMENDURAKO

(2a) 2p == => 2p/2s-begirunezkoa:

Letoniera (*jus*); bulgariera, mazedoniera, serbokroaziera, esloveniera (*vi*), txekiera (*vy*), eslovakiera (*vy*), lusaziera (*uy*), errusiera eta bielorrusiera; albaniera (*ju*); suediera (*ni*), yiddish (*ir*); bretoiera (*c'hwi*), eskoziar gaeliera (*iu*); latin berankorra (*vos*), Erdi Aroko espainiera (*vos*), Erdi Aroko italiera (*voi*), frantsesa (*vous*); gaurko grekoa (*eseis*); mendebaldeko erdialdeko iraniera (erdialdeko pertsiera eta parthiera), gaurko pertsiera.

Tipo honek oraindik ere bizirik irauten du (3) tiporantz lerratu diren hizkuntzetan, estandarretik kanpoko azpisistema gisa: adibidez, italierazko *voi* Calabriako hegoaldean, Napolesko lurraldean, Pugliako iparraldean, Erroman, Tesinoko Kantoian, Korsikan; eta Italiako iparraldeko landa-eremuetan, Emilia-Romagna aldean bereziki.

(2b) 2p == => 2p/2s-begirunezkoa == => 2:

ingeleza (*you*), bretoieraren (*c'hwi*) dialekto barzuetan, batez ere Kornuallesko hegoaldean eta Vannes-ko eremu batean (zehatzago esateko, Pontivy-tik Qimper-era eta Carhaix-etik Lorient-era).

(2c) 2p == => 2-begirunezkoa; 2-duala == => 2p (ez-begirunezkoa):

Islandiera

(2d) 2s (begirunezko izenordain bereziaz) == => 2s-begirunezkoa; 2p (begirunezko izenordain bereziaz) == => 2p-begirunezkoa/2s-hiperbegirunezkoa:

daco-errumaniera (*dumneata* begirunezkoa, *dumneavoastra* hiperbegirunezkoa).

(2e) 2p == => 2p; 2p (begirunezko izenordain bereziaz) == => 2s-begirunezkoa:

frisiera (jo: 2s-begirunezkoa; *jimme*: 2p)

(* ikurrak “hipotetikoak” edo “dokumentatugabeak” esan nahi du)

Beste hizkuntza batzuek aurrerago jo dute, tratamenduen higadura-prozesuek eta adierazpen-premia berriek bultzatuta sistema osoa erabat berregituratzeraino: pluraleko izenordainek, solaskide bakarrari mintzatzerakoan begirunezko tratamendu gisa erabiliek, beren hasierako esanahi soziala (begirunea) eta beren hasierako numeroa (plurala) galduta, erabat hedatu dira hiztun bakarrarekin aritzeko ($II' \implies II'/II$ -begirunezkoa $\implies II$); jakina, halakoetan, izenordain jatorriz plurala singular bihurtzean sortutako hutsunea, plural berri batez edota jatorriz plurala zenari pluralgileak erantsiz bete behar izan da. Orduan, plural berri edo berritua berriz ere errespetua adieraztera irits daiteke solaskide bakarrari mintzatzerakoan¹¹. Halako bilakaera gertatu bide da turkieraz, bengaleraz eta Indiako beste zenbait hizkuntzat¹².

Hipotesiak hipotesi, euskararen garai historikoan ez dugu *zu* singular begirunezkoa besterik, *bi* lagunartekoaren aurrez aurre; ondorioz, *zu* izenordainaren singulartzearen hipotesia onartuta ere, ezinezkoa zaigu proposaturiko urrats biko bilakabide historikoa (1. $*II' \implies *II'/II$ -begirunezkoa; 2. $*II'/II$ -begirunezkoa $\implies II$ -begirunezkoa) datatzea eta are gutxiago gezurtatzea.

2. HIRUGARREN PERTSONA BEGIRUNEAREN ADIERAZGARRI BERORI

Berori izenordaina solas-maila gorenari dagokio hegoaldeko euskarari (*bi* < *zu* < *berori*) eta hirugarren pertsonako adizkerekin konbinatzen da. Salbuespenak salbuespen (Duvoisin), ez da erabilia izan mugaz bestaldeko idazlearen artean.

Hitza osatzen duten morfemak ondoko hauek dira: *ber-* (gazt. “mismo”) eta *-(h)ori* (gazt. “ese”), bigarren graduko erakuslea. Errespetuzko tratamenduan pertsona-izenordainen zeregina betetzera iritsi den arren, berez eta jatorriz, erakusleen sailekoa da (Euskaltzaindia, 1985:77); izan ere, (*h*)*au*, (*h*)*ori*, (*h*)*ura* eta (*h*)*auek*, (*h*)*oriek*, (*h*)*aiek* erakusle bakunen aldamenean *berau*, *berori*, *bera* eta *berauek*, *beroriek*, *beraiek* erakusle “indartuak” (*ber-*)¹³ daude euskaraz, lehenago aipaturiko zerbaiti edo norbaiti erreferentzia egitekoak (adibidez,

11. Euskal Herrian hitanoa galdu eta bigarren pertsonako izenordain bakarrarekin (*zu*) geratu diren hiztun ugariarentzat lehen urratsa burutu den arren ($II' \implies II'/II$ -begirunezkoa $\implies II$ -begirunezkoa $\implies II$), ez dirudi bigarrena (*zuek* $\implies$ *zuek/II*-begirunezkoa) gauzatuko denik.

12. Egia bada Amerikako hegoaldeko ingelesean *you all* solaskide bakarrari zuzentzeko errespetuzko izenordain gisa erabiltzen dela, orduan honako bilakaera hau izango genuke: lehenengo, pluraletik begirunezko singularrera ($II' \longrightarrow II'/II$ -begirunezkoa); gero, hortik singular orokorra izatera ($\longrightarrow II$); eta azkenik, plural bikoitz berritua (*all* pluralgileaz hornitua) errespetuzko singular gisara.

13. Erakusle indartuok (*berau*, *berori*, *bera*) berrindartu edo berretu egin daitezke berriro *ber-* hartuaz: *berberau*, *berberori*, *berbera*... (EUSKALTZAINDIA, 1985: 155).

au; lenengo seina izateko egoala, beronen; amorde sorgina... non *beronen* eta *au* formek erreferentzia bera duten edo hurrengo hau, *egiunia egin eben ba, sosuak lortuteko txakurrari; beronek; nai eban gatzatu gustia*, non *beronek* eta *txakurrari* erreferentziakide diren). Hortaz, ageri-agerian dago errespetuzko tratamenduko *berori* (II-hiperbegirunezkoa) eta *beroriek* (II'-hiperbegirunezkoa) formen jatorria: eskualde batzuetan oraindik ere bizi-bizirik dauden bigarren gradu-ko erakusle indartuak berak dira, baina zeregin berezi baterako erabiliak, hots, tratamendu-izenordain bilakatuak.

Beroriren jatorrizko erakusletasuna azpimarkatzera datorren beste froga bat, Nafarroako haran batzuetan (Aezkoa, Zaraitzu¹⁴ eta Erronkarin, Azkueren arabera –Azkue, 1905-1906; Azkue, 1923-1925, II:&640–) erabiltzen den ori aldaera da, formaz bigarren gradu-ko erakuslearekin (*(h)ori*) bat datorrena¹⁵. Hain aspaldi ez dela egindako beste bilketa batzuen arabera (besteak beste, Irigoyen, 1957b:120-121; Beloqui et alii, 1953: 514; Artola, 1991), oro har, baieztatua geratzen da Azkueren informazioa erronkarierazko *ori*-ri dagokionez¹⁶. Gaur egun, *ori* errespetuzkoa hiru euskalki hauetan erdi galdu-

14. Oso kasu bitxia da XIX. mendeko zaraitzuerazko hurrengo testuan ageri zaiguna. Eaurtako Pedro José Samper zaraitzuar apaizak (Samper, 1833) ez darabil zinezko beroriketarik printzeari zuzentzeko, “erdizkako zuka-berorika” (horrela deitzerik baldin badago) nahasia baizik. Tratamenduaren aldetik oso testu bitxia da, Samperrek, ohartu gabe, mintzamolde berri bat sortu zuelako. Eaurtako apaizak beroriketa tratamendua (*ori* + hirugarren pertsonako adizkerak) eskura baldin bazeukan, aski irudituz ez-edo printze bati zuzentzeko eta, “Zure Alteza” titulua, hirugarren pertsonako adizkerak eta zuka alokutiboa uztartzen ditu Bonaparte tratatzerakoan. Inguruko erdaretan ohorezko tituluekin ohitzen denez, *Zure Alteza* titulu hanpatua hautatu izanak hirugarren pertsona erabiltzera bultzatu zuen Samper; baina ez zen horretan gelditu. Hirugarren pertsona erabili arren, zuka alokutiboari eutsi zion, are bigarren pertsona erreferentzialari dagozkion hirugarren pertsonako adizkietan ere (*Zure Altezak etzu motivoric...*). Begi bistan dago ondorioa: tratamendu berri nahasi samarra, beroriketarik hirugarren pertsonaren erabilera besterik ez duena, ez zuka alokutibo garbia, ezta beroriketa garbia ere. Horra hor, aipatu gutunaren hasierako zatia:

Jaurrieta 23 de abril de 1866.

Serenísimo Señor.

(Orai uscaraz, ceren ofrecitua zor baita eta bear pagatu).

Izan zut, shauna, itzez manifesta eztoquetan gozoa errecibitzean Zure Altezaen cartara zuauren bondade andian escriptric ilabete conen amargarnean Londresen ene chiquintarzunari, erranez ellegatu dela Zure Altezaa novedaderik bague ciudade contra, izan baitu ere acaicio aniz eta andi viaje luce eta tembra gastoarequin egin duenean, lecu cuek gaindi.

Aniz alegratu nuzu bada shaquitean ongui itzuli dela Zure Altezaa zuauren lecuala. Guisa berean nic seguitzen zut ongui nore osasunaren novedaderik bague nore etse pobre contan, beti beira edo espera noiz escriptzen dadayen Zure Altezaen lagunec, baya orañic etzu oritu nitaz; noizbait aguian oritren tzu; baya beti Zure Altezaa len oritu zu ezic urac. (...)

15. Aipaturako haranetako hizkeretan ezik, hauetan ez baita sinkretismorik; aezkera, zaraitzuera eta erronkariara gainerako euskalkietatik aldendu dira erakusleen sailean: aezkeraz *gori* [erakuslea]/*ori* [izenordaina]; zaraitzueraz eta erronkarieraz *kori* [erakuslea]/*ori* [izenordaina].

16. Hala ere, *Erizkizundi Irukoitzak* (Echaide ed., 1984: 224) *berori* forma dakar Uztarrozekotzat II,41,E galderari (“usted mismo, vous même”) erantzunez.

ta badago ere¹⁷, tratamendu horrek lehenagoko garaietan agian hedadura dialektal zabalagoa (hegoaldeko goinafarreraraino?) izango zukeen Nafarroan gaindi. Elkanoko Lizarragak (1748-1835), adibidez, batzuetan *berori* forma erabiltzen duen arren (ik. Michelena, 1987: “berori” sarrera), behin edo behin *ori* forma ere badarabil (“Eztut nai ori baizik, ori soilik aski dut se lee en la Copla num. 301 de Lizarraga: no quiero sino a vos, vos meramente me bastáis.” Azkue, 1923-1925, II:&640).

Errespetuzko *berori* eta erakusleen arteko lotura argitzeko, esan dezagun, azkenik, euskaraz bigarren graduako erakuslea ((*b*)*ori*) erlatiboazko perpausetan (a) eta erlatiboaren pareko egituretan (b) bigarren pertsona erreferentzialari dagokiola (bokatibo gisa edo) erabiltzen dela; adibidez, a) *Hainbeste bidegabekeria egin duzunorrek ez duzu errukirik merezi*, b) *Jaun agurgarri hori* [gutunetako agurra]; *Ken hadi hortik, leloori!*; *Maritxu nora zoaz, eder galantori...* Horregatik dio Gavelek (1928:558) *berori* izenordainaren esanahia hitzez hitz “celui-là même (à qui je parle)” dela.

Hizkuntzaren garai historikoko lekukotasunei bagagozkie (Michelena, 1987), esan beharra daukagu *berori*, Duvoisinin adibideren bat kenduta, ez dela behin ere sartzen mugaz bestaldeko literatur tradizioan. *Beroriren* lehen lekukotasunak errespetuzko izenordain gisa XVII. mendearen erdialdera agertzen dira Micoleta bizkaitarraren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) idazlanean. Azpimarkatu behar da Micoletak *berori* formarekin batera, *z(e)ure mesedeori* esapide kalkatua ere erabiltzen duela gaztelaniazko “Vuestra Merced” (V. Md. nahiz V. M.) tratamenduaren baliokidetzat (*Que vestido se quiere poner V. Md.? = Seyn soyñeco asseguin dau ymini seure meçede orec?; Esso fuera si V. M. fuesse persona sospechosa, que no se ha de mentar la sogá en cassa del ahorcado = Ori lisate, valiz sure meçedeori persona sospechacoa, serren esta aytatuco soquea vrcatuen eSean*). XVII. mendean bertan bizkaierazko beste bi idazlanean agertzen da (Capanaga, 1656; eta bizkaierazko dotrina batean). XVIII. mendean gipuzkerazko eta hegoaldeko goinafarrerazko idazleen lehen lekukotasunak agertzen dira Larramendi eta bere eskolako batzuen inguruan (Larramendi, Cardaberaz; Lizarraga Elkanokoa). XIX. mendean, Duvoisinin salbuespenaz, bizkaierazko (J. A. Moguel, V. Moguel, J. J. Moguel, P. Astarloa, J. A. Uriarte, Arrese Beitia, A. Iturzaeta) eta gipuzkerazko (Iztueta, I. Bizcarrondo “Bilintx”, G. Arrue, J. I. Arana, J. J. Alcain “Udarregi”, M. Soroa, A. M. de Zabala, C. Beovide, A. Apaolaza, P. M. Urruzuno) idazleen artean agertzen da bakarrik eta antzera gertatzen da XX. mendean. Era berean, hiztegigileen artean, Larramendi (1745) eta Añibarrorenak (1800) dira lekukotasunik zaharrenak (gazt. “Usted, Vuesa merced”). Bestalde, Duvoisinin hitzetatik (“... en usage dans la Vasconie espagnole”) beroriketa hegoaldera

17. Guri Aezkoan (Abaurregainan) eta Zaraitzun (Otsagin) ez digute baieztatu (*b*)*ori* errespetuzko pertsona-izenordainaren erabilera; gure lekukoen arabera, *zu* da apaizarekin, maisu-maistrarekin eta jende zaharrarekin erabiltzen den errespetuzko tratamendu bakarra. Hala eta guztiz ere, berriemaile gutxiegi izan ditugunez gero, ez gaude inola ere Azkueren deskribapena ukatzeko edo gezurtatzeko moduan. Baliteke, beste herri batzuetan gertatu den bezala, ohitura hori erdi balduta izatea.

mugatua zegoela ondoriozta daiteke. Beraz, *berori* izenordain hiperbegirunezkoak hegoaldean baizik ez du izan tradizioz, eta berau, gainera, ez dirudi oso antzinatik datorrenik (1653z geroztik), ezta hegoaldean bertan ere erro-
tuegia egon denik.

Orain arte esanak kontuan harturik, beroriketa tratamendua berrikun-
tztatut hartzearen alde makurtzen gara. Eta hori pisuzko arrazoi batzuen-
garri. Lehendabizi, beroriketa hegoaldeko euskalkietara mugatua dagoelako eta
harrigarria litzatekeelako oso antzinako euskal forma baten hedadura, atzo
goizekoa (XVI. mendekoa) den muga politiko-administratiboarekin bat
etortzea. Izan ere, euskalkien arteko bereizgarri edo isoglosa zaharrak ez doaz
sortaldetik sartaldetantz, iparmendebaldetik hegotsaldetantz baizik¹⁸. Bi-
garrenik, nahiko susmagarria da, alde batetik, hegoaldeko tratamendu-siste-
ma hirukoitzak (*hi* < *zu* < *berori*) XVI. mendeko espainieraz zegoenaren antz
apur bat duela eta beste alde batetik, iparraldeko euskarak lehengo frantsesa-
ren antza duela egiaztatzea. XVI. eta XVII. mendeetako espainieraz lau
solas-maila nagusiok bereizten ziren solaskide bakar batekin aritzeko:

1. *Tú* edo “tuteo”;
 2. *vos* + 2. pertsonako adizkera plurala;
 3. (*él, ella*) + 3. pertsonako adizkera singularra;
 4. *vuestra merced*¹⁹ + 3. pertsonako adizkera singularra.
- Mailaketa: 1 < 2 < 3 < 4

Lehen tratamendua (*tú*) apalena zen eta behe-mailakoekin edo behe-mai-
lakoen artean erabiltzen zen batik-bat. Bigarren tratamendua (*vos*), XV. men-
dera arte begirunezkoena izana, berdin artean edota beheragokoekin za-
baltzen hasi zen XV. eta XVI. mendeetatik aurrera eta harrezkero lehian
sartu zen *tú* lagunartekoarekin, harik eta azken hau nagusitu arte; hortaz,
kasu bakan batzuetan ezik (adibidez, behe-mailakoen giroan, beheragokoa

18. Mitxelena azaldu duenez: “Es interesante, luego, que las isoglosas que el Príncipe eligió como fundamentales vayan por lo general de Norte a Sur o, más exactamente, de No-
roeste a Sudeste. Esto significa, claro está, que los Pirineos no fueron en fecha antigua una
barrera diferenciadora, sino que, como ocurre más al Este en zona románica, la comunicación
era directa entre valles de ambas vertientes que se continuaban uno a otro”. (MITXELENA,
1977: 52).

19. *Eta vuestra merced-etik eratorriak*, hala nola, *vuessa merced*, *vuessarced*, *vuessansted*, *vuessas-
ted*, *vuessasté*... eta guztiz arrunt edo herrikoiak ziren *voarcad*, *voacé*, *vucé*, *vuested*, *vosted*, *vusted*,
etab. (LAPESA, 1970: 147). Jakina, *vuestra merced* izan zen nagusituz joan zen formula errespe-
tuzko arrakastatsuen, baina berarekin batera eta lehian hurrengo modukoak erabiltzen
ziren solaskidearen estatusaren eta duintasunaren arabera: “*vuestra* + izen abstraktua (*señoría*,
excelencia, *alteza*, *majestad*, *paternidad*, *reverencia*, etc.)”. Aurreko esapideekin batera “*su* + izen
abstraktua (*merced*, *señoría*...)” ere erabiltzen zen, hasieran hirugarren pertsona bati buruz hitz
egiteko eta ondoren (XVI eta XVII) solaskideari erreferentzia egiteko; geroago, *usted* berdin
edo kidekoen artean errespetuzko tratamendu orokor gisa hedatzerakoan, *su merced* formula
goragokoarenganako tratamendua adieraztera pasa zen. Azkenik, “*el señor* (*la señora*, *el doctor*,
mi coronel...) eta hirugarren pertsonako adizkera singularra” formula aipatu beharra dago.

goraxeagokoari zuzentzerakoan), *vos* ez zen hain errespetuzkoa. Laugarrena, XVI. mendearen lehen herenean errespetuzko tratamendu ohizkoa izatera heldu zen behe-mailakoak ez ziren kidekoen artean edo kategoriako beheragokoekin. Eta hirugarrena (3. pertsonako adizkera), laugarrenaren aldaera apalxeagoa eta berriagoa (XVI. mendearen erdialdera sortua –Pla Cárceles, 1923:248–), ez zen aitonen semeentzako adinakoa: *vuestra merced* formula kortesiazkora ohituta ez zegoen jende arruntak edota *vuestra merced* kortesia emateko edo hartzeko uzkur zirenek²⁰ erabiltzen zuten. Hirugarren tratamenduaren aldaera oraindik berriagoa (XVI. mendearen hirugarren herenekoa edo), hirugarren pertsonako adizkera soila, izenordainik gabea zen.

Ageri denez, berbizkunde garaiko espainieraz erruz baliatzen ziren hirugarren pertsonako adizkeraz errespetuzko tratamendu gorenatarako. XVI. eta XVII. mendeetako frantsesean, ordea, bide horrek ez zuen inolako arrakastarik izan. XVII. mendean, eztabaida interesgarria piztu zen gramatikararien artean frantses garbi, jaso eta gustu onekoa lortzearen jarraitu beharreko hizkuntz ereduaren inguruan: batzuk (François de Malherbe) Parisko frantses herrikoiairen alde makurtu ziren; beste batzuek (Claude Fabre Vaugelasko jauna, Charles Sorel), ordea, hizkera herrikoia eta probintziakeriak oro baztertuta, gorteko mintzaira proposatu zuten hizkera eredugarritzat. Bada, gorteko mintzairaren aldekoa den Vaugelasek *vous* soilari gutxiegi irizten zion eta “*vous + Monsieur* titulua” formula ematen zuen gizarteko tratamendu onargarri eta gomendagarritzat²¹ (Maley, 1974: 29); gainera, frantsesezko usuarioaren (*vous* errespetuzkoaren) defentsa gartsua egiten du, espainierazko edo italierazko hirugarren pertsonako tratamenduen deserosotasunean oinarrituta. Hona hemen, Sorelen hitzak:

“Quant aux autres titres de grandeur, moindre que la Royale, on ne doit faire aucune difficulté de mesler l’un avec l’autre, nostre langue s’estant réservé cette liberté, que l’italienne ny l’Espagnole n’ont pas, à cause que *vous*, en ces deux langues est un terme incompatible avec la civilité, sur tout *vos*, en Espagnol, ce qui n’est pas en la notre. Les Latins font bien encore moins ceremonieux, qui disent

20. Eremutar bizikeraren zale ziren karmeldar erreformatuek, adibidez, ez zuten eragozpenik jartzen beren artean *él* edo *ella* tratamenduak erabiltzeko. Aita Graciánen arabera Santa Teresa honela mintzatu zitzaion: “*El* no sabe que cualquier alma, por perfecta que sea, ha de tener un desaguadero? *Déjeme a mí* tener éste”. Eta San Joan Gurutzekoaren gutunetan hurrengoaren moduko pasarteak irakurtzen dira: “Jesús sea en su alma, y gracias a El, que me le ha dado para que, como *ella* dice, no me olvide de los pobres, y no como a la sombra, como *ella* dice...” (LAPESA, 1970etik jasotako aipuak, 159).

21. Dena den, batzuetan hirugarren pertsonako estilo zeharkakoa hobesten dute gramatikariek estilo zuzenaren kaltetan; esate baterako, Andry-ren arabera (1692), *Plaist-il à Monsieur* zen “tratamendurik” (estilorik) gorena eta gomendagarriena errespetu handia erakusteko, hots, zeharkako estiloa; *vous plaist-il Monsieur?* bezalako estilo-nahasketak eta are gehiago, *voulez-vous Monsieur?* tankerako estilo zuzena ez ziren gomendagarriak jaun handi bati zuzentzeko; eta zer esanik ez, *Comment vous portez?* bezalakoak arruntkeria onartezintzat jotzen zituen estilo zuzenagatik. Hona hemen, beraren hitzak: “Il est bon d’observer encore... que le mot, *vous*, n’est pas des plus respectueux, lors qu’on parle à quelque personne que l’on doit ou que l’on veut traiter avec respect” (...) “Il faut bien se garder si l’on n’est pas son égal, de lui aller dire, *vous plaist-il Monsieur*, &c., ou ce qui seroit bien pis: *voulez-vous Monsieur*”. (MALEY, 1974: 25etik jaso).

toujours *tu*, à qui que ce soit, & il me semble que nous avons pris un milieu & un temperament bien raisonnables entre ces deux estremitez, en donnant par honneur le nombre pluriel à une seule personne, quand nous lui disons *vous*, & en évitant dans le commerce continuel de la vie, la frequente & importune repetition des terms dont les Italiens & les Espagnols se servent en sa place”.

(Maley, 1974:29tik jasotako aipamena)

Ondorioz, pentsatzekoa da batez ere hegoaldeko euskarari garatu ziren hirugarren pertsonako tratamenduak, seguruenik, garaiko gaztelaniazko eredu aztarnak izan daitezkeela. Edozein modutan ere, zentzu hertsian horrek ez du esan nahi *berori* izenordain hiperbegirunezkoa mailegatua denik, formaz ez baitu inondik ere gaztelaniazko ezein izenordainen antzik. Onartzekotan, interferentziaren posibilitatea eta agian baita kalkoarena ere onar gentzake, baina ez mailegubidearena.

Duela gutxi argitaratu diren antzinako eskuizkribu batzuetan (Floristán Imízcoz, 1993:177-219; Satrustegi, 1993:443-475) XVI. mendeko gaztelaniaz erabiltzen ziren tratamenduen euskal kalkoa dakusagu, baina ez zaigu agertzen gaurko beroriketakik. Aipatu testuak XVI. mendean idatzitako espioitza-gutunak dira eta balio filologiko eta linguistikoko handia dute alde askotatik. Gure gaiari begira, bitxi preziazatutako jo beharrean gaude, garaiko gizarteko asimetriazko harremanak ispiatzeko dituztelako. Gutun edo idatzi horietan bi berriemaileak errespetu handiz zuzentzen zaizkio beren jaun agintariari. Zuberoako Atharratzen bizi arren, Amikuze aldekoa (Nafarroa Beherekoa) zen lehen lekuko edo isilmandatariak, nobleziako Charles de Lussa edo Luxak, honela agurtzen du bere agintaria:

*Jauna: eremerciazzen derauçut cegei çoure merchediac
hainberçe <cou> cuidado baitu niçaç. (...)*

Gutxigorabeherako itzulpena (garai hartako, Otsagiko itzultzaile batek egina):

“Señor: Os agradezco porque vuestra merced tiene tanto cuidado de mi (...)”

Ikus daitekeenez, tratamendua ez da oso koherentea, hasieran zuka (*derauçut*) egiten diolako eta gerotxoago, gaztelarazko “vuestra merced + 3. pertsonako adizkera” tratamenduaren euskal ordain kalkatura (“*çoure merchediac* + 3. pertsonako adizkera”) jotzen duelako. Beste alde batetik, *-vous* edo *vosen* pluraltasuna bilatu nahirik, agian?— *derauçut cegei* dio, *derauçut çuri* esan beharrean.

Bigarren isilmandataria Urtubiako anderea (Ziburu eta Hendaiaren artean, Hondarribitik lekua batera zegoen Urtubia dorreko anderea) da eta berak aitortzen duenez (*Jauna: barca biezat/ zeren ezpaitout zure senoriaren cartac/merchedi douen bezala eranzuten, batatz/ zeren ez naizen cortesanoa, baizic montaneza...*, ib. 459), ez da kortesaua edo ikasia, menditarra baizik. Mezu guztietan (hemeretzi testu, guztira) tratamendu gorenetakoa bat (“*zure senoria* + hirugarren pertsonako adizkiak”) erabiltzen du²², bere mezuaren hartzailea zen Juan Ve-

22. Gaztelaniaz, XVI. mendearen lehen herenean, *vuestra merced* baino goitarragoak ziren *vuestra-señoría* eta *vuestra-excelencia*. Azken hauek nobleziako jendeari zegozkion eta *vuestra*

lázquez Gipuzkoako gobernadoreari zegokionez. Hala ere, zenbaitetan –bost aldiz, gutxienez– pertsona-komunztadurazko hutsak egiten ditu, bigarren eta hirugarren pertsonako adizkerak txandakatuz:

Jauna: erezebitou dout zure senoriaren carta / couserba ordenariocouequin batean, non escouac / apazen batizquizut mila bider nitzas douen couidadoas. (Satrustegi, 1993: 453).

...Eta / bitartean mana naza bere serbizuan, ezin mondouan denec/eztou borandate obes obeditouco nola nic egingo baitut, / eta adio esaten dizu zure serbizary humbleac. Itzulpena: “Y entre tanto, mándeme en su servicio que, quien esté en el mundo no le obedecerá con mejor voluntad a como lo haré yo y le dice adiós su humilde servidora”. (Ib. 454).

Jauna: zure senoriac barca biezat / (...)... Adisquideac / gastigatou zidan dese-azen zendouela / jaquitera non zen gobernadorearen jendarma. (Ib. 459).

...Aseguratzen zaitudala / nere fidelitateas fin emanen diot presenteary. Itzulpena: “Asegurándole mi fidelidad daré fin a la presente”. (Ib. 464).

...Legataren partes gizon bat passatu da partel orretarat eta argatic eztiot deus Franziac/ berry gastigatzen. Inglesarenic ezin deusic / adi dirot, eta zure serbizary humbleac adieu esaten dizu. Itzulpena: “En lugar del legado ha pasado un hombre a esa parte y por eso no le envío ninguna noticia de Francia. Nada le puedo informar de lo del inglés y vuestra humilde servidora os dice adiós”. (Ib. 465).

XVI. mendeko testu hauen egile behenafarrak eta lapurtarrak “*çoure merchede/zure senoria*”tik zuketara egiten dituzten jauziak nahiko susmagarriak dira. Erabilera zalantzakor horrek garai bateko –XV. mendeko– gaztelania dakarkigu gogora (Lapesa, 1970: 146). XIII. mendetik aurrera, gaztelaniaz *la vuestra merced, la vuestra cortesía, la vuestra merced...* bezalako formula hanpatuak hasi ziren erabiltzen, artean gizarte-maila goitarretan ohizkoa zen *vos* tratamendu begirunezkoarekin batean; XV. mendean formula hanpatuekiko zaletasuna inoiz baino gehiago hazi zen (*vuestra manificencia, la vuestra pru-*

merced oro har gorteko jendeari. Hona hemen, zenbait adibide: *Jauna: eztout faltatou nai izan zure senoriary/ parte emaitere nere osasounas eta etorraras. Zure/senoriaren carta emen batou zait(a) contentou ascol eman baitit, ascotant el dadila nire merchede egiteral (...)* /...eta estout/ faltatouco *zure senoriary* parte emaitera, eta arte ounetan egin biezat zertan zerby al dezaquedan (SATRUSTEGI, 1993: 451); *...Nic presentean jaquin al doudanaur da, eta etorquizunas asegoura bedy zurel Senoria esana egonen naizela. Eta adieu esaten diot geldizen naizela bety bezala/ serbizary humblea* (Ib. 453); *Jauna: bidalzen diot zure senoriary bartl...* (Ib. 454); *...Bidalzen diot/ zure senoriary Oigallaren erespueta izan doudana. A-l segoura bedy, Jauna, eginallie ez-talzen eztouela cartal bidaldou douenac. Eta esperanza ounequin, ezin sinestatoual edouquiren nauela, fina emanen diot geldizen naizela/ bety bezala serbizary humblea.* [itzulpena: “Le envío a Vuestra Señoría la respuesta que he tenido de Oigalla. Tenga por seguro, señor, que no ahorra esfuerzos el que ha enviado esta carta. Y con esta esperanza de que me dará crédito, pondré fin quedando como siempre humilde servidora”] (Ib. 455-456); (...) / *Losa ere banaiz <a> baina ezin nagoque zurel senoriary esan gabe, eta nolas parte oretarat/apresta al zaitequeien. Zure senoriary/ abertymentu eman zioten bezala, aren/ armada zer zen esanen diot <clago> claroquin...* (ib. 460); etab.

dençia, la vuestra nobleza, etab.)²³ eta Santillanak, adibidez, halakoak eta *vos* begirunezkoa erabiltzen ditu, noiz bata, noiz bestea. Hau da, hirugarren pertsonako tratamendua (*vuestra merced* + 3.pertsona) erabat finkatu bitartean, halako egokitze-garaia dago, zeinetan *vos* begirunezko zaharra eta begirunezko tratamendu berria (*vuestra merced*) antzeko balio pragmatikoz txandakatzen baitira²⁴ harik eta gustuaren balantza azkenean *vuestra merced* formula berriaren alde makurtu arte (XVI-XVIII).

XVI. mendeko euskal testuok bi eskuren emaitzak eta bi euskalkitakoak dira. Bada, egileek, ez behenafarreraz, ezta lapurteraz idazten duenak, ez dute erabat asmatzen tratamenduarekin. Zalantzakortasun horrek, gure ustez, hirugarren pertsonako tratamendu hiperbegirunezkoa XVI. mendeko euskaran erdizka garatutako berrikuntza bat zela iradokitzen du. Eta litekeena da hirugarren pertsonarekiko tratamendu-berrikuntza hau gaztelaren bidez sartua izatea. Antzina batean (XVI-XVII) hirugarren pertsonako adizkeren erabilera hiperbegirunezko tratamendu gisa ez zegoela hegoaldeko euskalkietara mugatuta azpimarkatu nahi dugu, beharbada gaur dagoen muga politiko-administratiboa orduan ezarri-berria zelako eta orduan mugaz haraindiko euskaldun franko Espainiako ohituren eraginetik at bizi ez zirelako.

Berori formara itzuliz, beldur gara hirugarren pertsonako tratamenduaren (*zure mesedeal/mesedeori, zure senoria...*) sorrera baino geroagokoa ez ote den. Garai historikoko lekukotasunen arabera, XVII. mendearen bigarren zatian (Micoleta, 1653; Capanaga, 1656) eta bizkaierazko idazleen artean agertzen da lehen aldiz. Bestalde, *berori* hiperbegirunezko zentzuan erabiltzen duen lehen idazleak, Micoletak, testuinguru berean (morroiak bere jaunari, hots, aitonen semea den Peru Jaunari) forma horrekin batera *zure mesedeori* ere erabiltzen duela kontuan hartzen bada, pentsa liteke *ea berori* orduan sortutako tratamendu berria ez ote den.

Hipotesi gisa, *berori* begirunezkoak, gaztelaniazko “él, ella + 3. pertsonako adizkera” tratamendu eratorriaren²⁵ sorbide bera izan zezakeela iradokitzera ausartuko gara. Izan ere, gaztelaniaz behin “vuestra + izen abstraktua (*merced, señoría...*)” izen-esapideak erabilita, geroago esapide astun horien ordezkoko modura *él* eta *ella* izenordainak sar zitèzkeen solaskideari erreferentzia egiteko (Lapesa, 1970:158). Euskaraz, bada, antzeko zerbait gertatuko zatekeen: lehendabizi, “zure mesedeal/mesedeori” eta antzeko esapide gaztelanitik kalkatuak (“zure señoría”, “zure Ilustrisima señoría”...) erabiltzen baldin

23. Garai hartako gaztelaniaz, inoiz, ohizko *vuestra merced* formularen ondian, *tu merced* esapidea ere gertatzen da.

24. “Este tratamiento [vuestra-merced] ya estaba en circulación en la primera mitad del siglo XV, (...) En cambio, durante la segunda parte de esa misma centuria, el *vuestra merced* era intercambiable con el *vos*” (PLA CÁRCELES, 1923: 245).

25. Gaztelaniaz aipatu tratamendua ez zen begirunezkoenaren forma kimatua baino: bestela esateko, *vuestra merced (vuestra celsitud...)* dotoretasunaz gabetutako kortesia arrunta, morroien ahotan maizegi jarria XVI eta XVII. mendeetako komedietan eta karmeldarren artean (San Joan Gurutzekoa, Santa Teresa...) erabilia. Hala ere, *él* eta *ella* izenordainek begirunezko tratamendu ohizko gisa iraun dute hurrengo hizkeretan: judu-gaztelaniaz (*vuestra merced* eta *usted* arrotzak zaizkie), Asturiasen, Miranda de Dueron eta Salamancaren sartaldean (LAPESA, 1970: 160).

baziren, geroago esapide luze horien ordez forma anaforiko laburra –lehen aipatutakoari erreferentzia egitekoak– erabiliko ziren, batik-bat genitibo kasuan. Proposatutako dugun bilakaeraren gakoak Capanagaren hurrengo adibidean (1656) ageri zaigu:

Alan daukat konfianzea zure Illustrisima Señoriak; faboreziduko dabela bein berorren; besoetara egotzi ezkerro.

(Michelena, 1987: “berori” sarrera)

Ikus daitekeenez, goiko esaldi horretan berorren forma, (*h*)ori bigarren graduko erakuslearen genitibo “indartua” (*ber-*) besterik ez da; hots, bi sintagma azpimarkatuak korreferenteak dira eta goragoko zure *Illustrisima Señoria* sintagmatik hartzen du erreferentzia bigarrenak (*berorren besoetara*). Azpialtal honen hasieran jarritako harako adibide hartatik (*au; lenengo seina izateko egoala, beronen; amorde sorgina...*) Capanagaren oraingo honetara (*Alan daukat konfianzea zure Illustrisima Señoriak; faboreziduko dabela bein berorren; besoetara egotzi ezkerro*) dagoen aldea txikia da: gaztelaniaz *su merced* hirugarren pertsonakotik *su merced* bigarren pertsonakora dagoen aldaketa bera, hain zuzen; formaz biak dira (bai gazt. *su*, bai eusk. *berorren*) hirugarren pertsonakoak, baina balio erreferentziala aldatu egin da hirugarren pertsonatik bigarrena.

Balio anaforikoa duten erakusle “indartuen” (*berau, berori, bera*) erabilera hau nahiko normala da gaurko mendebaldeko euskarari eta erabilera anaforiko horretatik (*berorren besoak*) absolutibo kasuko forma beregainera (*berori*) jauzi txiki bat besterik ez legoke: gaztelaniaz, *su merced* esapidetik *él/ella* izenordainetara dagoen jauzi bera edo txikiagoa, hain zuzen ([Conde] *Sois un traidor*, / [Gilote] *—Su mercé miente, y perdone. / [Conde] —Matalde. / [Gilote] —Máteme Dios, / que me hizo. ¿Es dotor él, / que mata en tinta y papel?* Tirso, Lapesa, 1970:148-149).

Ondorioz, *berori* biak, erakusle “indartua”²⁶ (“ese mismo”, “eso mismo”, “lui-même”) eta “begirunezkoa” ez dabilta hain urruti bata besteagandik. Michelenaaren arabera (1987, IV: 816) lehena, salbuespenak salbuespen (Ziburuko Etxeberri eta Pouvreau), hegoaldeko idazleen artean eta XVII. mendearen hasieratik dokumentatzen da. Bigarrena, geroago dokumentatzen da, XVII. mendearen erdialdera. Gure hipotesia ondo ezkontzen da dokumentazio historikoarekin: bigarren *berori* lehenengotik eratorria litzateke, gaztelaniatik etxeratutako izen-esapide begirunezkoak (*zure mesedea-zure mesedeori...*) erakusle-izenordain batez ordezkatu ondoren sortua (*Alan daukat konfianzea zure Illustrisima Señoriak; faboreziduko dabela bein berorren; besoetara egotzi ezkerro*). Horretxek esplikatu luke *berori* begirunezkoa hegoaldera mugatua egotea.

Labur bilduz, gure hipotesiaren arabera, euskal *berori* izenordain begirunezkoa ez litzateke inola ere gaztelaniari zuzenean hartutako mailegua, XVI. mendeko gaztelaniaren eragin zuzenez euskaraz garatutako hirugarren pertsonako tratamendutik (*zure me(r)sedea/mesedeori, zure senoria, zure illustrisima señoria...* + 3.eko adizkera) eratorritako tratamendu berria (XVII?) baizik. Dena den, gaztelaniaren eragin garbia onartuta ere, uste dugu *berori* izenor-

26. Ikus bitez “berau” eta “berori” artikuluen lehenbiziko sarrerak MICHELENAREN *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987).

dain begirunezkoaren sorrera euskararen barne-bilakaeraz esplikatu daitekeela, aipatu formula kortesiazkoen ordezkotik den erakusle indartu-anaforikotik (*beroritik*) abiatuta hain zuzen.

Hegoaldeko euskararen gertatutako bilakaera, hots, erakusleetara jotzea begirune handiagoa erakusteko, nahiko soluzio bakana da tipologiaren ikuspuntutik. Beste hizkuntza batzuetan erakusleak solaskidearenganako gutxiespen edo gaitzespena adierazteko (grekoa, latina, latinetikako hizkuntzak...) edo hitzunen apaltasuna solaskidearen aurrean erakusteko (egiptoera) erabili izan dira (Head, 1978:182-183). Oro har, erakusleek tarte sozial handiagoa adierazten dute, baina ez nahitaez begirune handiagoa hegoaldeko euskaraz gertatzen den moduan. Dena den, hirugarren pertsonako izenordainik ez duen eta erakusleak balio anaforikoaz erabiltzen dituen euskara bezalako hizkuntza batean ez da hain harrigarria hirugarren pertsonara jotzerakoan, erakusleaz baliatu izana.

Guk geuk susmatzen dugu *berori* begirunezkoaren lehen datazioa (1653) ez dabilela oso urruti bere sorreratik; hots, edozein kasutan, bere bilakaera gaztelaniazko hirugarren pertsonako tratamenduen bilakaerari (XVI) lotua somatzen dugunez, ez dugu uste euskal *berori* begirunezkoa data hori baino lehenagokoa denik. Azkuek ez bezala²⁷, *zu* izenordainaren singularartzea eta *zuek* plural berretuaren sorrera, *berori* izenordainarena baino biziki antzinagoak direla deritzogu.

Historian zehar solaskidearenganako begirune handiagoa erakusteko bigarren pertsona singularraren ordezkotik (pluraltasuna) eta pertsona-aldaketa (hirugarren pertsona) erabili dituzten hizkuntzetan, honako hau dugu diakroniazko hurrenkera (Head, 1978:189)²⁸: lehenik, bigarren pertsona plurala erabili da eta ondoren hirugarren pertsona. Ziklo hau hizkuntza indoeuroparretan eta bereziki latinetikoetan bete bide da ondoen²⁹. Bada, hegoaldeko euskarak ziklo berber horri jarraitu dio eta gure ustez, bigarren urratsa, hirugarren pertsonako izenordaina (*berori*) sortzea alegia, gaztelaniaren eragin zuzenaren ondorioz egin du euskarak.

27. "Algo más modernamente tal vez que se haya singularizado el pronombre *zu* y nacido el nuevo plural *zuek*, ha brotado otro pronombre personal con significación de vuestra merced, vuestra reverencia" (AZKUE, 1923-25: II: &640, 432).

28. "When both [numero- eta pertsona-aldaketa] occur diachronically, the attested sequences follow the order of second person plural, then third person (singular or plural or singular and then plural)".

29. Ziklo hau jarraitu bide du begirunezko pertsona-izenordainen bilakaerak: lehendabizi, bigarren pertsona plurala singularraren ordezkotik (adib. gazt. *vos*); ondoren, urrunago joatekotan, izen-esapideak asmatu dira (adib. gazt. *vuestra merced*) eta horietatik edo horien ondorioz hirugarren pertsonako izenordainak (adib. gazt. *usted*) sortu dira; azkenik, hizkuntza batzuetan zikloa azken bururaino bete da, hirugarren pertsonako izenordain plurala singularrari nagusitzerakoan (adib. alemanierazko *sie*). Hau da, lehendabizi pluraltasunaz baliatu dira begirunea adierazteko, ondoren pertsona-aldaketaz (hirugarren pertsonaz) eta azkenik, berriz ere, pluraltasunaz (JOSEPH, 1987: 263).

3. TRATAMENDU ADITZ-JOKO ALOKUTIBODUNEN BILAKAERA: HIKETA, ZUKETA ETA XUKETA ALOKUTIBOEN HURRENKERA DIAKRONIKOA

Euskalari gehienak³⁰ bat datoz tratamendu aditz-joko alokutibodunen ondorengo hurrenkera diakronikoa ezartzerakoan: lehenbizi, singularreko bigarren pertsonako adizkerak (*hi haiz*) eta pertsona bereko adizkera alokutiboak (*hura duk/-n*) uztartuz, hikako tratamendua (*hi haiz-hura duk/-n*) sortuko zatekeen euskara guztietan³¹; ondoren, behin *zu* izenordainaren singularrtzea gerta-

30. Hurrengoak, besteak beste: SCHUCHARDT (1893: 258); LAFON (1959: 124-129); REBUSCHI (1984: 534-535); ROS (1987: 31-33); ALBERDI (1986b: 422-424); etab.

31. *Hi* izenordainaren eta bigarren pertsonako adizkera ez-alokutiboen antzinatasuna ((*hi*) *haiz*) ezin ukatuzkoa da. Baina, gorago azaldu denez, hikako tratamenduak hikako aditz-joko alokutibo oso bat du bereizgarri: solas-maila hau hautatuz gero, singularreko bigarren pertsonako izenordain eta adizkerekin batera ((*hi*) *haiz*), *nahitaez* (*ni*) *nauk*, (*hura*) *duk*, (*gu*) *gaituk*, (*baiek*) *dituk* bezalako adizkera alokutiboak erabili behar dira lehen eta hirugarren pertsonako adizkera neutroen *-naiz*, *da*, *gara*, *dira* ordez; bestela esateko, hitanoan adizkera neutroak debekatuta geratzen dira perpaus nagusi asertiboetan.

Diakroniaren ikuspegitik galdera bat baino gehiago sortzen zaizkigu gai honen inguruan: a) zaharra al da hikako aditz-joko alokutiboa?; b) hikako aditz-joko alokutiboa betidanikakoa ez bada, nola eta noiz sortu da?; c) nola edo nondik heldu da gaur egun ezagutzen dugun “(*hi*) *haiz*-(*hura*) *duk*” bikotea?

Aurrera jo baino lehen, garai historikoan (XVI. mendeaz geroztik) gaurko egoera bera egiaztatzen dela azpimarkatu beharra dago; hortaz, Etxeparez geroztik hitanoa “(*hi*) *haiz*-(*hura*) *duk*” bikotearen bidez gauzatua ikusten dugu salbuespenik gabe. Ondorioz, hemen dik aurrerakoak euskararen historiaurreari dagozkion hipotesiak dira, gaur-gaurkoz gezurtagaitzak.

Lehenbiziko galderari dagokionez, baiezko eta ezezko erantzuna eman beharrean gaude. Alde batetik, Azkuek besterik uste duen arren (AZKUE, 1923-1925: &826-&834), ez dago zalantzarik hikako aditz-joko alokutiboa zaharra dena, lehenbiziko testuetatik dokumentaturik dugulako eta halako sistema morfologiko korapilatua goizetik gavera ezin eraiki daitekeelako (ALTUBE, 1934: 154-185); beste alde batetik, adizkera neutroak eta alokutiboak aurrez aurre jartzen baditugu, alokutiboen “geroagokotasuna” ondorioztatu behar da, errazago eta zentzuzkoagoa baitirudi bigarrenak lehenengoak oinarritzat harturik azaltzea eta ez aldearantziz. Definizioz eta morfologiaz adizkera alokutiboa konplexuagoa da; hikako alokutiboak zerbait gehiago du, eztabadakakoak ez duena. Ondorioz, “zaharra” dela onartuta ere, hikako aditz-joko alokutiboaren izaera markatua eta erakarria azpimarkatu behar da aditz-joko neutroaren aldean.

Hikako aditz-joko alokutiboaren sorrera eta bilakaera azaltzeko egin den saiorik trinkoena Schuchardt erromanista eta euskaltzalearena (*Baskische Studien*, I, 1893) da, neurri handi batean geroagoko euskalari entzutetsuenek onartua (GAVEL eta LACOMBE, 1933-1936; LAFON, 1944; ALTUBE, 1934). Hizkuntzalari germaniarrak inguruko hizkuntzetako “datibo etiko” deritzon baliabide adierazkorren argitan azaltzen du hikako alokutiboaren sorrera, baina hura eta alokutiboa ongi bereiziz eta edozein kasutan euskararen barneko adierazkortasun-gertakarietatik irten gabe.

Jakina, Schuchardtek egiten duen datibo etiko edo maitakorrarekiko (‘afectuoso’) konparaketa, gaurko aditz-joko alokutiboaren sorrera diakronikoki azaltzeko saiakera gisa bakarrik justifikatu eta ulertu behar da (“El primitivo sentido del dativo está muy oscurecido; sólo se nota aquí el signo de la conversación de confianza...”), gaurko euskal hitunak ez baitu alokutiboaren azpian datzan datibotasunaren kontzientziarik. Diakronikoki datibo etikoaren antzeko zerbaitetatik eratorritzat jotzen duen gaurko aditz-joko alokutiboa, oraindik ere bi-

tu eta gero, sortaldeko euskalki batzuek (EBN, Zar., Z, Err.), hikako tratamenduan oinarrituta eta alokutibotasuna mimetikoki bigarren pertsona begirunezkora hedaraziz, zuketa alokutiboa garatuko zuketena; eta azkenik, aipatu euskalki berritzaile horietariko batzuek (EBN, Zar.) aurrerago jo zuten beren bilakabidean eta, zuketa alokutiboari bustidura adierazkorra sistematikoki ezarriz “xuketa alokutiboa”, aurreko bi erregistroen bitarteko zeregin pragmatikoa betetzen duen tratamendua sortuko zuten. Ondorioz, eztabaida handiegirik gabe onartu ohi den goiko hipotesiaren arabera lehenik hitanoa dugu, ondoren zutanoa (alokutiboa), aurrekotik analogi bidez sortua eta azkenik, xuketa (alokutiboa), zuzenean zutanotik palatalizazio bidez erakarria.

Sortaldeko euskalkietako zutanoa oso antzinakotzat jotzen duen autorerik falta ez bada ere (Eguskitza, 1925:14), badira arrazoiak tratamendu hori *zu* ize-nordainaren singularitzea baino geroagokoa dela pentsatzeko. Auzi hau erabakitzeko orduan, lehen begiratu batean iduri luke idatzizko lekukotasun-iturriek argitasunik gutxi ekar diezaguketela, biak, hitanoa eta zutanoa lehen testuetatik ageri baitzaizkigu. Baina testuak arretaz arakatuz gero, desberdintasun nabarmen batez konturaturako gara. Izan ere, garai historikoan hikako tratamendua gaur ezagutzen dugun eran agertzen zaigu bat ere salbuespenik gabe, hots, ezinbestean “*bi haiz-bura duk*” bikotearen bidez mamitua edo bestela esateko, nahitaez hikako aditz-joko alokutiboaz hornitua. Zutanoaren lekukotasunak ere lehenbiziko idatzietatik (XVI) ageri zaizkigu eta horrek esan nahi du ez dela hain tratamendu berria, baina aurreko kasuan ez bezala, “*zu zara-bura duzu*” lotura oso gorabeheratsua eta salbuespen askokoa izaten da (Lafon, 1959: 120).

Zorionez eta zoritxarrez Garaziko Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) da esandakoa gezurtatzeko dugun testu ia bakarra, eta gaur-gaurkoz balioetsua. “Zorionez” esan dugu, euskaraz argitaratu eta gure eskuetara iritsi den idazlan mardul zaharrena, hiru tratamendu aditz-joko alokutibodunen –hiketa, zuketa eta xuketa– jabe den euskalki batez, ekialdeko behenafarrerez (“garaztarrez”) egina delako, denek aitortutako freskotasun eta natural-

zirik dirauen datibo etikoaren erabilera adierazkor eta murriztu baten aztarna dateke Schuchardten iritziz (SCHUCHARDT, 1893: 307-308).

Bestalde, hainbeste jarraitzaile (GAVEL et LACOMBE, 1933-1936: &12; LAFON, 1944: 405-410; 1959: 108; ALTUBE, 1934; LAFITTE, 1944: &541, &690, &691) izan duen interpretazio diakroniko honen arabera, adizkera alokutiboen lehenengo erabidea (nator ==> niatorrek) datibo etikoaren antzeko zerbaiten ondorio ihartua baldin bada, bigarren erabidea (naiz ==> nauk) “ergatibo etiko” dei genezakeenaren ondorioa litzateke (SCHUCHARDT, 1923).

Mitxelenaekin batera (MICHELENA, 1988: 795) uste dugu adizkera alokutiboen hirugarren ezaugarria (hasierako kontsonante sabaikariak: *nago* ==> *ñagok*; *dago* ==> *jagok*...) interpretatzeko modu zuzena honakoa dela: pertsona-indize alokutiboarekin batera ager daitekeen berezko ezaugarri “lagungarria” -i- dugu (Etxep. *diagok/-n*), orainaldiko ingurune fonikoan sarritan irristari gisa ahoskatua [nj-, dj-...] (Etxep. [djagok]) eta palatalizazio eta asibilazio atzekari askoren eragilea (ONEDERRA, 1990: 16-17; 41-44). Jakina, hau azalpen fonologiko orokorra da eta benetan oso zaila da bilakabide orokor hori nola, noiz eta non gauzatzen den zehaztea; bestalde, Schuchardtek erakutsi duenez, gaurko lekuan lekuko aditz-joko alokutiboaren xehetasunak azaltzeko analogiaren eragina eta ezaugarri foniko batzuen morfologizazioa onartu beharko dira behin baino gehiagotan.

tasun paregabeak darizkiolako eta pasarte askotako estilo elkarrizketatuari esker tratamenduen erakusgarri gertatzen delako; beste alde batetik, gure auzirako “zoritxarra” edo kontuan hartzeko aldagaia dateke testua errimatua izatea, errimazko beharkizunek-eta mintzaira zentzu batean edo bestean aldaraz dezaketelako³².

Etxepareren bertsogintzan zehar toketa (*hi haiz-hura duk*), eztabada (*zu zara-hura da*) eta zutano alokutiboa (*zu zara-hura duzu*) mintzamoldeak ageri zaizkigu. Baina hiru molde horien artean tratamenduzko aurkakotasun garbi bakarra dago: *hi* eta *zu* pertsona-izenordainen artean dagoena, hitano eta hitano ez denaren artekoa, alegia. Lagunarteko tratamendu gisa finkatutako hikako mintzamolde egonkorren aurrez aurre, *zu*-kako mintzamolde biak (eztabada eta zutanoa) agertzen zaizkigu begirunezko tratamenduaren adierazgarri.

Toketa hurrengoekin edo hurrengoan artean erabiltzen du: irakurlearekin lehenengo kantuan (I: 25, 29, 33, 37, 41, 45, 53, 78, 129, 205, 209, 214); irudizko zentzuan bekatuak bekatariari toka mintzo zaizkio (I: 281); poeta bere buruari edota irakurle maiteminduari (II: 64, 68); neska arnegatuak maitale ausart edo lotsagaldukoari (VIII: 5, 13, 15, 19; XII: 37); behin bakarrik poeta Jainkoari (XII: 49); poeta bere buruari (XIII: 1, 64, 68, 72, 76, 80, 84); poetaren etsaiaren ahotan (XIII:97); poeta euskarari (XIV: 1, 7, 12, 14, 30, 39; XV: 2). Bada, hiketa erabiltzen duenean, Etxeparek ez du behin ere huts egiten alokutiboaren erabileran; behin bakarrik dakusagu hikako esaldi bat tartekaturik eztabadakako bertso batean (XIII: 50) eta alokutiboaren erabilera ustegabeko hau eztabadatik hitanorantz, hots, introspektiorantz egindako tratamendu-aldaketari egoz lekiok agian.

Gainerakoetan zuka eta eztabadaka mintzatzen da olerkaria, baina sarritan mintzamolde bat eta bestea lar bereizi gabe. Esaterako, badakigu jeneralean Ama Birjinari, Jainkoari eta bere maitaleei eta inoiz bere irakurleari *zu* izenordaina ematen diena, baina hortik aurrera oso zaila da zehaztasun gehiagorik ematea; haietako bakoitzarekin zutanoka ala eztabadaka aritzen den zorrotz zehazterik ez dago, bakoitzarekin bi eratara aritzen delako eta sarri bertso berean. Kantu batzuek (VIII, IX, X, XII) berebiziko balioa dute auzi hau argitzeko, elkarrizketa-eran idatzita daudelako eta maitaleen arteko tratamendua erakusten digutelako; bada, guztietan daude gorabeherak zutano eta eztabadaren artean eta zenbaitetan “hutsak” *zu*-kako alokutiboen erabileran. VIII.ean, adibidez, gizon maitalea eztabadaka hasten zaio neskari (VIII: 1-4), baina bigarren ahapaldian bertan adizkera neutroa eta zukako alokutiboa txandakatzen dira (VIII: 9/12: *pena dizit/eztut uste*); neska maitaleak, ordea, toka erantzuten dio hikako alokutibotasuna behin ere ahaztu gabe. IX.ean maitale biak eztabadaka aritzen dira hasieran (IX: 3-12), ondoren zutanoka hasten dira (IX: 13, 17, 25, 27, 29, 31, 33); gero, ahapaldi batetik bestera eztabadatik (IX: 35) zutanora (IX: 37, 39) pasatzen da gizon maitalea, azkenengo bertsoetan eztabadaka jarduteko (IX: 45, 47). Hamargarren

32. Herri-poeta den arren eta ondorengo bertsogileekin konparatuta eguneroko herri-euskarari bortxa gutxi eragin dion arren (ALTUNA, 1980: XX).

kantuan ere maitaleak eztabadaka hasi arren (X: 1-10), zutanoka aritzen dira kantu guztian zehar (X: 11-74), pare bat aldiz zukako adizki alokutiboen ordeztutakoak erabiliz (X: 40, 69). XII.ean, orobat, ahapaldi batean zutanoka (XII: 17), hurrengo bietan eztabadaka (XII: 21, 25), hurrengoan zutanoka (XII: 29), hurrengoan eztabadaka (XII: 33), azkenean neska maitaleak haserre toka erantzun (XII: 37) eta mutilaren azken bertsoan zutanoa (XII: 41) eta eztabada (XII: 43) nahasten dira.

Bestela ere, behin baino gehiagotan aurkitzen ditugu adizki neutroak eta zukako alokutiboak uztarturik. Lehen kantuan, Ama Birjinari zuzendutako ahapaldian, eztabadakako adizkia eta zukako alokutiboa bata bestearen ondortik ditugu: *O andere gloriosa eta ama ezia!;/ zutan dago bekhatozen esperanza guzia./Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,/arimaren salbatzera zu zakiztan balia.* (I: 49-52); kantu berean irakurleari zuzenduta dirudien ahapaldi batean gauza bera gertatzen da (I: 101-104) eta berebat Jainkoari zuzendutako 188-191 bertsoan (*O iaun bona, aitortzen dut bekhatore nizala/eta gaizki egitiaz ogen handi dudala;/nik baitzitut ofensatu bide eztudan bezala,/dolu dizit eta damu zure kontra eginaz*). II. kantuan nahaste berbera dugu behin baino gehiagotan (II: 7-10; 82-87) eta gauza bera V.ean (V: 9-12). VI. kantuan eztabadakako adizkiak ageri zaizkigu hasieran, zukako alokutiboak gero (VI: 15, 19) eta zukako alokutiboak eta neutroak batera hurrengoan (*Denbora hartan ohi nizin/nik zugatik dolore,/orai aldiz zure faltaz muthatu niz ni ere;/...*, VI: 23-24). VII.ean ere alokutiboak eta eztabadakakoak elkarren jarraian ageri zaizkigu: *Amore bat ukben dizit miragarri jentilik;/harekila ninzanian enuien nik faltarik;/ nik iagoitik ezin nuke hura bezain maiterik;/baren minez orai nago ezin hilez bizirik* (VII: 3-6).

Erakusgarri hauetatik guztietatik batez ere zutanoaren zalantzakortasuna, finkotasunik eza eta hautazkotasuna ondorioztatzen dira antzinako testuetarako, are hurkotasun edo familiartekotasun handiko pasarte eta testuinguruetan. Gure ustez, XVI. mendeko hitanoaren finkotasunari kontrajartzen zaion zutanoaren egoera ezegonkorrak agerian jartzen du azken tratamendu honen “berriagotasuna”.

Bestalde, badirudi zukako adizki alokutiboen erabilera edo erabilerarik eza erregistroari lotua egon izan dela lehenbiziko dokumentuetatik (Lafon, 1959: 120). Azpimarkatzekoa da testuinguru formaletan eztabada nagusitzen dela eta zutanoak ozta-ozta duela sarbiderik. Horrela, Etxepare, bere liburuaren sarrerako gutunean apal-apalik eta begirune handiz, eztabadaka mintzatzen zaio erregearen abokatu zen eta bere bertsoak argitaratzeko ardurara eta ahalmena zituen Bernard Lehete jaunari. Era berean, XVI. mendearen bukaeran (1595?) Espainiako erregearentzat espioitza-lana egiten duen lekuko behanafarrak (Charles de Luxe) ere hartzailearenganako begirune handia erakusten du bere gutunean eta oro har ez du zutanorik erabiltzen (*hil aniz bi aldetaric: bamasei mila baratu dituçu canpouan*), eztabadaz (*eremerciazzen de-*

rautzut-Heben beri bazu ditugu) eta hirugarren pertsonaz (*çoure merchediac baitu*) oratutako tratamendu nahasia baizik.

Aitzitik, formaltasunezko edo ofizialtasunezko erregistrotik urrundu ahala, aukera gehiago bide dago zutanoa erabiltzeko; adibidez, Bertrand d'Echauzek 1584an bere anaiari igorritako gutun laburrean (Michelena, 1964: 154-157) zukako alokutiboak besterik ez ditu erabiltzen perpaus nagusietan. Beraz, Bonapartek jarritako deitura gorabehera ("traitement respectueux") eta hitanoaren aldean dituen kortesiazko edo begirunezko konnotazioak gorabehera, badirudi zutano tratamenduak betidanik lagunartekotasun-edo etxekotasun-kutsu berezia izan duela eta iraganerako "+alokutibotasuna = +hurbiltasuna, etxekotasuna, lagunartekotasuna" berdinketa nahiko arrazoizkoa izan daitekeela.

Zuketa alokutiboaren berriagotasunaren alde, esandakoaz gainera, bere izaera dialektal marjinala kontuan hartu behar da, sortaldeko mugaz haraindiko (EBN, Z) eta mugaz honaindiko (Zar., Err.) euskalkietara mugatua dago eta. Ondorioz, euskal dialektologiaren aitzindari eta gailurra izan zen L. L. Bonaparteren irizpideen arabera isoglosa baliagarri eta erabakigarria den ezaugarri hau, hizkuntz sistemaren barne zegoen gaitasun baten (solaskidearen inplikazioa edo agian alokutibotasuna) garapenaren eta hedapenaren ondorioz sortutako berrikuntza dialektala delakoan gaude eta ez arkaismoa. Lafonek aditzera eman duenez (Lafon, 1959: 128), baliteke hitanoaren leungarri gisa eta haren eredura sortu izana, lagunarteko tratamenduari itsatitako gordintasun edo zakartasuna saihestearren.

Bestalde, aipagarria da zutanoak mende baten buruan Donibane-Garazi inguruan egin duen atzerakada. Bonapartek utzitako itzulpen eta oharren arabera, XIX. mendearen hirugarren herenean Donibane-Garazin, Garazin eta oro har EBN osoan guztiz hedatua zegoen zutanoaren erabilera eztabadaren orde; bada, guk duela gutxi (1992) Donibane-Garazin eta inguruko zenbait herritan (Lasa, Arnegi, Luzaide, Uharte-Garazi...) egin ditugun galdeketa batzuen arabera, paraje horietan hiketa, xuketa eta eztabada solasmailak besterik ez dituzte eta ez dute zukako alokutiborik erabiltzen. Areago, Donibane-Garazi inguruan ez ezik, EBN osoan barrena ere somatu dugu zukako aditz-joko alokutiboaren galera gazte jendearen artean. Ondorioz, EBNz garai batean eta egun zenbait lekutan zuketa eta eztabada bereiztera heldu baldin bada, duela mende batetik hona zuketa eta eztabadaren arteko neutralizazioa eta ondorioz ordezkapena gertatzen ari da bigarrenaren alde. Beraz, eztabada eta zuketaren arteko muga hasiera batetik irristakorra izan bada, gaur egun are ahulago edo hauskorragoa da bien arteko aurkakotasuna ekialdeko behenafarreran.

EBNren eta zaraitzueraren bereizgarria den xuketari dagokionez, zuketatik zuzenean palatalizazio bidez eratorria dirudi eta ondorioz, oraindik zuketak baino berriagoa. Oro har, aditz-joko alokutibodun tratamenduei etxekota-

sun-kutsu nabaria badarie, xuketari are handiagoa jatorriz eta sortzez hizkera maitakor eta adierazkorraren fruitu delako. Solas-maila honen idatzizko oihartzunak oso bakanak izateaz gainera, oso berriak dira, beharbada tratamendu hau ahozko hizkerari datxekion zerbait izanik literaturan gutxitan ispiatzen delako edota sortu berria delako. Ia eskuko hatzamarrekin zenbat daitezke lekukotasun idatziak; hona hemen batzuk: Bordel (1792-1879) luzaidarraren *Bertsoak*; M. Elissamburu (1826-1895) heletarraren *Framazonak* (1890); E. Zubiri (1867-1943) luzaidarraren idazlanak; M. Etchamendy (1873-1960) ezterenzubitarraren *Bertsoak*; J. B. Etchepare (1937-1961) jatsiarraren *Mendekoste gereziak eta beste*. Zoritxarrez, lekukotasun zuzen eta zeharkako (Bonaparte) zaharrenak, XIX. mendekoak ditugu eta ondorioz, oso zaila da tratamendu berriaren sorrera datatzea.

Azkenengo bilakaera hau ($zu \Rightarrow xu$, $-zu- \Rightarrow -xu-$) oso interesgarria da, sortzez palatalizazio adierazkorrari³³ lotua badago ere, leku batzuetan adierazkortasun fonetikotik harantzago joan den bilakaera izan duelako. Bilakaeraren lehen aldian palatalizazio adierazkorak izenordainean bakarrik izango zuen eragina ($zu > xu$), geroago bustidura sistematikoki hedatuko zen aditz jokatuen morfologian zehar bigarren pertsona argumentalaren zein alokutiboaren indize guztietara ($z-/zu/-zu- > x-/xu-/-xu$), zuketa tratamenduaren aldaera adierazkor eta markatua sortuz. Tratamendu biak, zuketa eta xuketa, gordetzen dituzten eskualdeetan badirudi benetako hots-sinbolismo edo adierazkortasun fonetikoaren aurrean egon gaitezkeela (Oñederra, 1990:74), xuketaren erabilera-esparrua zuketarena baino zertxobait mugatuagoa izan daitekeen hainean. Nolanahi ere den, bigarren urratsa, morfologizazioa, oso nabarmena da gaur Arbelako eskualdean edo Donibane-Garazin, non galdu egin baita xuketaren abiapuntu izan den zukako aditz-joko alokutiboa³⁴.

33. Euskal kontsonante-sistemak bi sail ditu, bata oinarrizkoa, /b, d, g, p, t, k, f, m, n, l, r, rr, z, s, tz, ts/ unitatez osatua eta bestea, erakarria, /tt, dd, ñ, ll, x, tx/ fonema sabaikariez osatua.

Palatalen saila bigarren mailakoa, beranduagokoa da eta bere jokabide diakronikoari bagazokio izaera marjinala dauka. Palatalen sailak hutsuneak ditu, gainera: fonema batzuek ez dute kideko palatalik eta palataletako batzuk oinarrizko saileko fonema batekin baino gehiagorekin daude aurkakotasunean. Kidetasunak ondokoak dira:

t.....	tt (>tx eskualde batzuetan)
d.....	dd
n.....	ñ
l (eta /r,rr/ ekialdean)	ll
z,s.....	x
tz,ts	tx

Korrelazio-sistema honek zaharra dirudi, baina antzina batean, artean euskarak balio adierazkorrik gabeko palatalik (asimilazio automatiko edo asemikoaren ondoriozkorik edo bestelakorik) gutxi zuen garaian, nabarmenagoa izango zen sail bien arteko kontrastea. Zehaztasun gehiagorako ikus Oñederra, 1990.

34. Gure artean Oñederrak ongi azaldu duenez, "Gauzak estu lotzekotan, badago zalantzarik gabeko baldintza bat, hizkuntzaren elementu adierazgarriek bete behar dutena. B adierazgarria izango bada IV.2.ean finkaturiko zentzuan, nahitaezkoa da A oinarrizkoaren aldaera izatea. Hain zuzen ere, adierazgarritasuna, adierazgarri ez den, oinarrizko eta "neutroa" den zerbaiten arauera definitzen bait da". (OÑEDERRA, 1990: 71).

Hots, horrelako eremuetan Mitxelenak iragarritakoa bete da: “El valor expresivo de la serie palatalizada no podrá claro es, manifestarse plenamente más que cuando con la forma “normal” o “fuerte” de la palabra conviva la forma “débil”, y desaparece por lo general cuando la forma originalmente marcada ha quedado como única.” (Michelena, 1977: 180); izan ere, Donibane-Garazi inguruan xuketa barra-barra erabiltzen da euren arteko tratamendu neutro edo markatugabea balitz bezala. Beharbada, palatalizazioa morfologizatu³⁵ –edo egin dela esan daiteke: zeregin gramatikal– enuntziatiboa bereganatu du hiketa eta eztabadaren bitarteko tratamenduaren bereizgarria izateraino.

Dena den, palatalizazio adierazkorak euskaraz oro har fenomeno zaharra dirudien arren³⁶, ez dugu uste xuketa, tratamendu finkatu gisa, oso antzinakoa denik, beraren lekukotasunak aski berriak direlako, zuketaren (EBN, Zar., Z, Err.) bustiduraren ondorioz sortua delako, hau da, oraindik marjinalagoa delako (EBN, Zar.) eta zuketak berak gorago aipatu arrazoiengatik oso antzinakoa ez dirudielako.

Euskal tratamendu aditz-joko alokutibodunen bilakaera diakronikoaz orain arte esan duguna laburtzeko, honako hurrenkera diakronikoa ematera ausartuko gara: orokorra den singularreko bigarren pertsonako hiketa da tratamendu zaharrena askozaz, garai historikoan *hi haiz-hura duk/-n* bikote finkoaz osatua, hots, aditz-joko alokutibo bereziaz hornitua; ondoren –askoz geroago–, sortaldeko euskalkietan (EBN, Zar., Z, Err.) hiketarekiko analogiaz edo haren ereduz, zuketa alokutiboa sortuko zatekeen, *zu zara-hura duzu* bikote ez hain finkoaz osatua eta XVI. mendeko idatzietatik erregistroaren eta abarraren arabera alokutiboari dagozkion gorabehera handiekin (*hura duzul/hura da*) dokumentatua; eta azkenik, zuketaren bustidura adierazkorraz xuketa (*xu xara-hura duxu*) tratamendu markatuago eta marjinalagoa (EBN, Zar.) sortuko zatekeen, XIX. mendera arte dokumentatugabea.

4. BIGARREN PERTSONAKO TRATAMENDUEN BILAKAERA EUSKARAZ: HIPOTESIAK

Segurantza edo sinesgarritasun pixka batez, gehienez ere, hurrengoaren moduko hurrenkera proposa genezake tratamenduen sorreran: 1) hiketa da tratamendurik antzinakoena eta hasiera batean bakarra; 2) antzinakoa izan

35. Rebucschik dioenez “La difference entre le BN oriental [EBN] et les autres dialectes consiste en ce fait que la palatalisation s’est grammaticalisée dans le premier, (...), car elle a éliminé les formes non palatalisées du traitement allocutif proprement dit”. (REBUSCHI, 1984: 520).

36. Oñederrak Mitxelenari jarraiki dioenez, “Bustidura adierazgarria zaharra dela dirudi. Izan ere, euskalki guztietan azaltzeak, pare bizietan edo bestelako arrastoetan, bilakabide zahartzat hartzera bultzatzen gaitu, are gehiago agertzen duen sistematikotasuna dela eta”. (OÑEDERRA, 1990: 70).

behar duen lehenbiziko eraberritzea eztabada (*zu zara-bura da*) da, orokorra eta begirunea adierazteko pluraltasunera jo izanaren ondorioz sortua; 3) bigarren berrikuntza zuketa alokutiboa izango zatekeen, sortaldeko euskalkietara mugatua eta lehenbiziko testuetatik dokumentatua; 4) geroago, XVI. mendeko gaztelaniari hartutako “izen-esapidea (*jauna, zure mesedeori, zure senoria...*) + hirugarren pertsonako adizkerak” tratamendua erabiliko zen aldi labur batez eta itxura denez, ez bakarrik hegoaldeko euskalkietan; formula honetatik geroago, XVI-XVII inguruan, beroriketa sortuko zen hegoaldeko euskalkietan; 5) eta beharbada oso aspaldi ez dela, ekialdeko behenafarrerak eta zaraitzuerak xuketa garatuko zuten zuketa alokutiboaren palatalizazio adierazkorraz.

Hiketa, gaurko eran nahiz aditz-joko alokutiborik gabe, izango zatekeen tratamendu antzinakoena eta hasiera batean bakarra. Ondoren, zu izenordainaren singularitzeaz, hiketa/eztabada (*hi haiz-bura duk/zu zara-bura da*) bikoiztasuna sortuko zatekeen euskara osoan. Estadio horretxetan gelditu ziren lapurtera eta mendealdeko behenafarrera. Handik aurrerako berrikuntzen ondorioz euskalkiak elkarrengandik aldenduz joan ziren. Alde batetik, sortaldeko euskalkietan (EBN, Zar., Z, Err.) hiketaren eta eztabadaren bitarteko solas-maila sortu zuten mendeen buruan: zukako aditz-joko alokutiboaren erabilera hedatu eta etxekotasun-kutsua bereganatzerakoan, *hiketa* < *zuketa* < *eztabada* tratamendu-hirukoiztasunerako atea irekiko zen, beti ere “alokutibotasuna/alokutibotasunik eza” edo zuketa/eztabada aurkakotasuna nahiko labankorra izanik; zentzu estuan, sortaldean benetako tratamenduak familiartekotasunez jantzitako hiketa eta zuketa alokutiboak ziren eta eztabada “ez-tratamendua” edo izango zen, hurbiltasunik izan ezean eta erregistro goitarretan erabiltzekoa. Beste alde batetik, hegoaldeko euskalkiek hiketaren eta eztabadaren gainera dagoen hirugarren pertsonako tratamendu hiperbegirunezkoa sortu zuten, beroriketa (*hiketa* < *eztabada* < *beroriketa*). Hegoaldeko sortaldeko euskalkietan (Zar., Err.) berrikuntza biak (zuketa eta beroriketa) gertatuko ziren eta horixe da, hain zuzen, erronkarierak eskaintzen duen irudia: *hiketa* < *zuketa* < *eztabada* < *beroriketa*. Azkenik, sortaldeko euskalkien artean EBN eta zaraitzuera urrunago joan ziren eta bitarteko hirugarren tratamendu alokutibo bat sortu zuten zuketaren palatalizazio adierazkorren bidez (*hiketa* < *xuketa* < *zuketa* < *eztabada*). Beraz, berrikuntza guztien hartzaile izan zen XIX. mendeko zaraitzuerak beharbada bost tratamendu bereiziko zituen: *hiketa* < *xuketa* < *zuketa* < *eztabada* < *beroriketa*. Edozein modutan ere, zuketa/eztabada aurkakotasuna iraganean eta duela gutxi arte erronkarieraz baliagarri gertatu bada ere, gaur egun guztiz ahuldua dago.

Egia aitortzeko, iraganerako aurreko puntuan proposaturiko bilakabideetatik harantzago joan ahala edo hizkuntzaren historiaurrean gora igon ahala, hipotesi gero eta ahulagoak, gezurtagaitzagoak alegia, adierazi beharrean aurkituko gara. Horrela, hitanoaren antzintasunaz ez dago eztabaida handiegirik, baina proposamen desberdinak egin dira antzinako egoera eta geroagoko bilakabidea azaltzeko.

Lafonek (1959: 124-126), adibidez, gaurko hiketa aditz-joko alokutiboduna proposatu du ondorengo bilakaera guztien abiapuntutzat: zu izenordainak esanahi plurala (II') zuen hasierako garai hartan, singularreko bigarren pertsonako (II) tratamendu bakarra zegokeen eta nahitaez adizkera alokutiboak erabili beharra solaskide bakar batekin aritzeko (*hi haiz-bero duk*); adizkera neutroak (*bero da*) askorekin hitz egitekotan edota zehazki inori zuzendu ezean erabiliko ziren. Bigarren aldi batean *zu*-ren singularitzea begirunea adierazteko eta izenordain-sistemaren berrigutaraketa gertatuko ziren (2p. == > 2s-begirunezkoa; *zuek* izenordain berretuaren sorrera pluralerako) eta hirugarren eta laugarren aldietan zukako aditz-joko alokutiboaren sorrera eta xukakoarena gauzatuko ziren sortaldeko euskalkietan.

Rebuschik (1984:534-535), ordea, honako aldi hauek proposatu ditu tratamenduen bilakabidearen hasieran:

1) lehenbiziko garaian tratamendu bakarra zegokeen, hiketa alokutiborik gabea: *ni naiz, hi haiz, hura da...*

2) bigarren garaian, *hi*-kako bi tratamendu bereiziko ziren alokutibotasunaren arabera:

lagunartekoa: *ni nauk, hi haiz, hura duk...*

kortesiazkoa₁: *ni naiz, hi haiz, hura da...*

3) hirugarren aldian, aurreko kortesiazkoa₁ tratamenduaren ordeztuntza erromantzei mailegatutako kortesiazkoa₂ sartzen da:

lagunartekoa: *ni nauk, hi haiz, hura duk...*

kortesiazkoa₂: *ni naiz, zu zara, hura da...*

Azkenik, hirugarren proposamen baten arabera (Alberdi, 1986b: 422-424 eta Ros, 1987: 31-33), antzina batean hiketa ez-alokutiboa (*hi haiz, bero da...*) izango zen tratamendu bakarra, baina hiltunak adizkera biltzaileak (*ni nauk, gu gaituk...*) erabil zitzakeen solaskidea solasera biltzeko edo solaskidearekiko hurbiltasuna bilatzeko; bada, baliabide adierazkor eta hautazkoa zena, solaskidearen biltzea edo inplikazioa, derrigorrezko bihurtuko zen, *zu* izenordaina singularitu eta *hi* izenordainaren lagunartekotzea edo lautzea gertatutakoan. Harrezkero, lagunarteko ziren adizkerak, bai bigarren pertsonakoek (*hi haiz*) bai biltzaileek (*ni nauk*) elkar bilatuko zuten elkarrekin erabat josteraino; horrela helduko zen gaur ezagutzen dugun hiketa alokutibora, hots, *hi haiz-hura duk* bikote finko eta derrigorrezkora, jatorrizko inplikazioa ahaztuta. Hortaz, hipotesi horren arabera gaur ezagutzen dugun tankerako hiketa alokutiboa *zu* izenordainaren singularitzearen ondoren eta *hi*-ren lautzearen ondorioz gauzatuko zen.

Nolanahi ere den, azken hiru hipotesi hauek, antzinako denbora ilunetan murgiltzen diren neurrian, tentagarri bezain ahulak iruditzen zaizkigu, ez baitago berauek gezurtatzeko modurik edo bata edo bestea aldezteko irizpide irmorik. Hortaz, bigarren mailako hipotesi gisa aitortzen diegun balio murriztatik, bere horretan utziko ditugu iruzkin kritiko handirik gabe³⁷.

37. Euskal tratamendu-usarioen orainaz, iraganaz eta geroaz ALBERDI 1991 ikus daiteke.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J.: (1986a), "Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat", *Donostia, ASJU*, 149-202.
- (1986b), "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko kasua", *Donostia, ASJU*, 419-486.
- (1989), "Euskararen morfologiazko ikerketak (1900-1936)", *ASJU*, XXIII-3, 769-796.
- (1991), "Hikako tratamenduaren balore sozio-afektiboak", *Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta*, 1993, 64, 425-442.
- ALTUBE, S.: (1934), *Observaciones al Tratado de "Morfología Vasca" de Don R. M. de Azkue*, (Azkueren Morfologia Vascaren 1969ko argitarapenean, 3. liburukia).
- ALTUNA, P.: (1980), *ikus Etxepare (1545)*.
- (1992), "Cortesía", *ASJU*, XXVI-1, 119-143.
- ALTZIBAR, X.: (1992), *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia.
- AÑIBARRO, P.: (-1820), *Gramática Bascongada* (-1820), L. Villasanteren edizioa, *ASJU*, III, 1969.
- ARTOLA, K.: (1977), "Erronkariko uskararen azken hatsak...oino're", *FLV*, 25, 75-107.
- (1991), "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra", *FLV*, 247-281.
- AZKUE, R. M.: (1891), *Euskal Izkindea-Gramática Eúskara*, Bilbo, José de Astuy.
- (1905-1906), *Diccionario vasco-español-francés*, 2 liburuki, Tours. (2. argitaraldia, Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).
- (1923), *Morfología Vasca (Gramática básica dialectal del euskera)*, (Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).
- (1927), "Aezkera", *Euskera*, 8, 179-300.
- (1931), *Particularidades del dialecto roncalés*, *Euskera*.
- (1935, 1942, 1945, 1947), *Euskalerriaren yajintza*, 4 liburuki, Espasa Calpe, Madrid. 2. liburukia (*Ipuin ta irakurgaiak*), (2. argitaraldia, Madrid, 1966).
- BEAN, S. S.: (1970), "Two's company, three's a crowd", *American Anthropologist*, 72, 562-564.
- BELOQUI, J. J., ELOSEGUI, J., SANSINENEA, P. eta MICHELENA, L.: (1953), "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés", *BAP*, 9, 499-536.
- BENVENISTE, E.: (1964), *Problèmes de linguistique générale*, NRF.
- BONAPARTE, L. L.: (1862), *Langue basque et langues finnoises*, Londres, 1862.
- (1869a), *Le verbe basque en tableaux*, Londres.
- (1869b), *El salmo quincuagésimo*, Londres.
- (1878), *Parábola del sembrador*, Londres.
- BOUDA, K.: (1948), "Les formes respectueuses du verbe mixain", *Eusko Jakintza*, 2, 595-615.
- BROWN and LEVINSON: (1987), *Politeness: Some Universals in Language Usage*, Cambridge University Press, 03/.
- BROWN, R. eta GILMAN, A.: (1960), "The pronouns of power and solidarity" in T.A.Sebeok (ed.), *Style in Language*, MIT press, 1960, 253-276 (baita in P.P.Giglioli (ed.), *Language and Social Context*, Penguin Books, 1972, 252-282).
- BROWN, R.: (1965), *Social Psychology*, New York, Free Press.

- CAMPION, A.: (1884), *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa (Bilbao, 1977, La Gran Enciclopedia Vasca, 2 liburuki).
- CAPANAGA, O.: (1656), *Exposición breve de la doctrina christiana*, Bilbao.
- COMRIE, B.: (1975), "Polite plurals and predicate agreement", *Language* 51 (2), 406-418.
- (1976), "Linguistic politeness axes: speaker-addressee, speaker-referent, speaker-bystander", Cambridge, Univ. of Cambridge, (Departement of Linguistics), *Pragmatics*, Microfiches 1.7.A3.
- (1981), *Language Universals and Linguistic Typology. Syntax and Morphology*, Chicago, University of Chicago Press.
- ECHAIDE, A. M. (ed.): (1984), *Erizkizundi Irukoitza. Triple Cuestionario. Triple Questionnaire* (euskara 1925), Bilbo, Euskaltzaindia.
- EGUSKITZA, J.: (1925), "¿Conjugación familiar o dialogada?", *Euskera*, 6, 3-15.
- ETXEPARE, B.: (1545), *Linguae Vasconum Primitiae*, P. Altunak paratutako edizio kritikotik aipatzen da (1980, Bilbao, Mensajero).
- EUSKALTZAINDIA: (1985), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, Iruñea, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.
- (1987), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-II*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- FAGOAGA, B.: (1961), "Algunas frases inéditas del euskera antiguo", *Euskera*, 6, 27-29.
- FLORISTÁN IMIZCOZ, A.: (1993), "Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos", *FLV*, 63, 177-219.
- GAVEL, H.; LACOMBE, G.: (1928), *Grammaire basque. Gure Herria*, 1933 (maiatza-ekaina), 1936 (iraila-abendua). Ikus bereziki *Gure Herria*, 1934, 446-450 eta *Gure Herria*, VI, 555-559 ["Appendice: Note additionnelle au §117. Usage du traitement et du pronom zu"].
- GEZE, L.: (1873), *Eléments de Grammaire Basque dialecte souletin suivis d'un vocabulaire Basque & Français-Basque*, Baiona. (Hordago, Euskal Klasikoak 27).
- GOENAGA, P.: (1980), *Gramatika bideetan*, Donostia, Erein.
- GREGERSEN, E. A.: (1974), "The signalling of social distance in African languages", in W. W. Cane (1974), *Language in its social setting*, 47-55, Washington, D.C.
- HEAD, B. F.: (1978), "Respect degrees in pronominal reference" in J.H. Greenberg and C. A. Ferguson and E. A. Moravcsik, *Universals of Human Language*, 3, 151-211.
- INZA, D. DE: (1921-1922), "Nabarro'ko aditz laguntzalea. Zuketako esakeran", *Euskera*, II (1921), 2º, 3-35; *Euskera*, III (1922), 2º, 65-92.
- IRIGARAY, A.: (1933), "El euskera en Zufía", *RIEV*, 24, 34-36.
- (1934), "Promesa de matrimonio en euskera", *Yakintza*, 81, 130.
- (ed.) (1958), *Prosistas navarros*, Iruñea, Institución Príncipe de Viana.
- IRIGOYEN, A.: (1957a), "Cartas de Inchauspe al Príncipe Bonaparte", *Euskera*, 2, 171-260.
- (1957b), "Cartas de Mariano Mendigatxa a D. Resurrección Mª de Azkue. Escritas en vascuence roncalés y en castellano", *Euskera*, 2, 119-170.
- ITHURRI, J.: (1895), *Grammaire Basque*. (Donostia, 1979, Ediciones Vascas).
- IZAGIRRE, C.: (1959), *Erronkari*.

JOSEPH, J. E.: (1987), "Subject Relevance and Deferential Address in the Indo-European Languages", *Lingua*, NLD, 73, nº 4, 259-277.

KROEBER, A. L.: (1925), *Handbook of the Indians of California*. Washington, D. C.: Bureau of American Ethnology.

LAFITTE, P.: (1979), *Grammaire Basque*, (Donostia, 1979, Elkar).

LAKA, I.: (1986a), "Manuel Arriandiagaren berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren Historiaz IV)", *ASJU*, XXI-2an.

– (1986b), "Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera. (Hiperbizkaieraren historiaz III)", *ASJU*, XXI-1.

– (1986c), "Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa. (Manuel Arriandiagaren eskuizkribu argitaragabea)", *ASJU*, XXI-3.

LAFON, R.: (1944), *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (2. argitaraldia, Zarautz, 1980, Elkar).

– (1951a), "Quelques traits essentiels de la langue basque", *BAP*, 7, 13-24.

– (1951b), "La langue de Bernard Dechepare", *BAP*, 7, 309-338.

– (1952), "Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare", *BAP*, 8, 139-180.

– (1957), "Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en Basque", *Via Domitia*, 4, 1-10.

– (1959), "Place de la 2^e personne du singulier dans la conjugaison basque", *Bulletin de la Société de Linguistique*, 54, 103-129.

LAPESA, R.: (1970), "Personas gramaticales y tratamientos en español" in *Homenaje a Menéndez Pidal*, IV, *Revista de la Univ. de Madrid*, 19, 141-167.

LARRAMENDI, M.: (1728), *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España*, Salamanca.

– (1729), *El imposible vencido*, Salamanca (Hordago, Euskal Klasikoak, 23).

– (1745), *Diccionario Trilingüe del castellano, vascuense y latín*, 1. liburukia, Donostia, Bartolomé y Montero Impresor.

MALEY, C. A.: (1974), *The pronouns of address in Modern Standard French*, Romance Monographs, Incorporated. (Romance Monographs, N.º 10).

MICOLETA, R.: (1653), *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* (2. argitaraldia, Sevilla, 1897, Establecimiento Tipográfico de Francisco de P. Díaz).

MICHELENA, L.: (1960), *Historia de la literatura vasca*, Madrid, Minotauro.

– (1961/1977), *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián. (2. ediziotik aipatzen dugu, Donostia, 1977, Exma. Diputación de Guipúzcoa).

– (1964), *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro.

– (1967), "Notas fonológicas sobre el salacenco", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* (ASJU), 1, 163-177.

– (1977), *La lengua vasca*, Bilbao, Leopoldo Zugaza.

– (1982), "Un catecismo salacenco", *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 39, 21-42.

– (1986), *Lenguas y protolenguas*, Salamanca, Ediciones Universidad de Salamanca, reimpresión 1986.

– (1987), *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, Edit. Desclée de Brouwer, S. A. y Ediciones Mensajero, S. A.

N'DYADE: (1970), *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.

– (1988), *Sobre historia de la lengua vasca*, Donostia-San Sebastian, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 10.

MITXELENA, K.: ikus MICHELENA.

OIARTZABAL, M.: (1951), "Iketa aditz-iokaeraz", *Eusko Gogoia*, 2, 30-33.

OIARTZABAL, B.: (1992), "Hikaren morfologia (aurkezpeneko materiale batzuk)", Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastolak antolatutako "Hika tratamenduari buruzko ihardunaldiak"n irakurritako hitzaldia (1992-V-25).

ONEDERRA, L.: (1990), *Euskal Fonologia: Palatalizazioa, Asimilazioa eta Hots Sinbolismoa*, Servicio Editorial Universidad del País Vasco-Argitarapen Zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea.

OYENART, A.: (1638), *Noticia de las dos Vasconias*, Paris (P. Javier Gorosteararen Paris-ko latinezko orijinalaren itzulpena, *RIEV*, 17, 18, 19. Lan honetarako 17. liburukia erabili dugu).

PLÁ CÁRCELES, J.: (1923), "La evolución del tratamiento de Vuestra Merced", *Revista de Filología Española*, 10, 245-280.

REBUSCHI, G.: (1984), *Structure de l'énoncé en basque*, Paris, SELAF.

RIJK, R. DE: (1991), "Familiarity or Solidarity: The Pronoun *hi* in basque", *RIEV*, 1991-2, (Año 39), XXXVI, 373-378.

ROS, A.: (1987), "Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: alokuzioa", *Enseñanza* 2 (5-54).

SAMPER, P. J.: (1833), "Curiosidades euskaras. Carta escrita en el subdialecto salacenco al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, por D. Pedro José Samper, Abad de Jaurrieta, acompañada de notas gramaticales redactadas por aquél ilustre bascófilo", *Revista Euskara*, 6, 322-336.

SATRUSTEGUI, J. M.^a: (1977), "Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga", *FLV*, 9, 109-114.

– (1981), "Xukako aditz-joskera Luzaideko mintzairan" in *Euskaltzaindia*, *Iker-1*, 343-354.

– (1993), "Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI", *Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta* (FLV), 64, 443-475.

SCHUCHARDT, H.: (1893), *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco*, (Angel Goenagak (1947) prestatuturiko espainierazko argitalpena –*Baskische Studien* I, Viena 1893koarena–, BAP, 28, 1972, 217-337).

– (1923), *Primitiae Linguae Vasconum*, espainierazko argitalpena, A. Yrigarayk (1947) prestatututako ohar eta iruzkinez hornitua eta Urkijoko jaunaren sarrerako gutun batez, Salamanca, C. S. I. C.

TRASK, R.: (1981), "Basque verbal morphology" in *Euskaltzaindia* (1981), *Euskularien nazioarteko jardunaldiak*. *Iker-1*, Bilbao, 285-304.

VILLASANTE, L.: (1988), *Euskararen auziaz*, Colección Eleizalde 9.

YRIZAR, P.: (1981), *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 liburuki, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.

ZAVALA, P.: (1848), *El verbo regular vascongado*, Donostia, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja.

LABURPENEA

Egileak euskerak dituen tratamenduak (hitanoa, zutanoa, eta abar) ikertzen ditu. Haien hurbilpen diakronikoa eraskusten du. Hala ere, euskal testu zaharrak urriak eta barieta-

te gutxikoak direla eta, euskerak dituen tratamenduen eboluzioa eta eraketaren datazio historiko zehatza eman baino gehiagorik haien ustezko eboluzio diakronikoa bideratzen saiatzen da.

RESUMEN

El autor trata en este artículo sobre la evolución de los tratamientos (tuteo, usteo, etc.) en euskara. Se ofrece una aproximación diacrónica en la que, dada la escasez de textos antiguos vascos y su exigua variedad, más que una datación histórica precisa sobre la formación y evolución de los tratamientos en euskara, se intenta principalmente establecer su posible sucesión diacrónica.

RÉSUMÉ

Dans cet article, l'auteur disserte au sujet de l'évolution des traitements (tutoiement, vouvoiement, etc) en Euskara. On y trouve une approximation diachronique où, vu le manque de textes anciens basques et leur variété fort limitée, davantage qu'une datation historique précise sur la formation et l'évolution des traitements en euskara, on essaie surtout d'établir leur possible succession diachronique.

SUMMARY

This paper studies the evolution of the customary usage of the forms of address (i.e. formal, familiar, etc.) in Basque. The author offers an approximate diachrony which, because of the scarcity of old Basque texts and their insufficient variety, tries to establish the possible diachronic succession of the formation and evolution of the forms of address in Basque rather than its precise historic dating.

